



**IRATXE**

**Libreria Anticuaria  
PAMPLONA**

M-3



**Escu Liburua 1.—G.**







Núm. 10.





N. - 29332  
A. - 16758  
ATV 12.154

# ESCU LIBURUA

---

JESUSEN CONPAÑICO

*Nita Agustin Cardaberaz-ec*

ANIMEN ONERACO IPIÑITACO

GOIZ ETA GAUBECO ORAZIOAC,

MEZA, ERROSARIO SANTUBA,

ESAMIÑA, CONFESIO TA COMUNIOA,

BEZPERAC, CALBARIOAC

ETA BESTE DEBOZIO ASCO.

---

OBISPO JAUNAREN BAIMENAREQUIN.

---

**TOLOSAN:**

EUSEBIO LOPEZ-EN MOLDIZTEGUIAN

1907-garren urtean.

*Iruñaco Obispo Jaunac ematen ditu berroquei eguneco indulgenzi, guchi edo asco liburu on-tan iracurten dan aldi bacoitzera.*

---

Liburu oni gueyagotu  
zayona nerea da.

---



GOIZERACO ORAZIOA.

---

Jesus, nere Jaungoico ta Redentorea, zure odol onguilleagatic, zure Ama chit gloritsuaren, Birjiña Mariaren bitartecotasunagatic, eta Santuguztien, nere guardaco Aingueruaren eta nere izeneco santue-

nagatic, erregutzen di-  
zut, indazula grazia  
ofenditu etzaitzadan,  
ez egun onetan, ez  
eta ere nere bizitzaco  
guztietan. Zu ez gue-  
yago ofenditzeco as-  
moa eguiten det. Zu  
zeranagatic eta gauza  
guztiaz goitic mai-  
tatzen zaitudalaco; eta  
zugatic padezitzeco bi-  
zitz ontan padezitu al  
nezaquean guztia. Es-  
queintzen dizquizut,

Jauna, nere eguite,  
itz eta pensamentuac,  
eta nai det gauz one-  
tan ibiltzea, charre-  
tatic alde eguitea,  
zuri obeditu, serbitu ta  
maitatzeco. Ala guer-  
ta dedilla, nere Jesus.  
Amen.

GAUBERACO ORAZIOA.

---

Jesus, nere Jaun-  
goico ta Redentorea,  
nic erregutzen dizut  
indazula grazia, zure

ontasunagatic, nere  
pecatuen eguizco da-  
mu bat izan dezadan.  
Damu det, nere Jaun-  
goicoa, gauza guztiaz  
goitic maitatu bea-  
rrean ofenditu zaitu-  
dalaco. Esqueintzen  
dizut confesatzea ta  
zuzentzea, barcatu-  
co didazulaco nere  
Criadorea. Ea, Jauna,  
barca eguidazu: eman  
eguidazu indarra gue-  
yago iñoiz ere ofendi-



tu etzaizadan, eta bizi  
ta ill nadin zure gra-  
zian, zure misericor-  
dia ta dolorezco pasio  
ta zure Ama Maria  
cutsu gaizto gabearen,  
Santu ta Aingueru  
guztien, nere guarda-  
coaren eta izenecoaren  
bitartecotasunagatic.  
Ala guerta dedilla, ne-  
re Jesus. Amen.





ONDO CONFESATZECO

EJERZIZIOA.

---

Confesatzeco gogoa  
Jaungoicoac ematean,  
mesede andi bat egui-  
ten dizu. Asmo ori-  
zuc artzean zeregana  
berealala, ta zure bio-  
tzean sartu bear dezu,  
ta bacartasun orretan  
pensatu Sacramentu  
ontan pecatuetatic  
Jaungoicoagana biur-  
tzeco bear dezula: le-

nengoz, beti prest da-  
goan beraren grazia;  
bigarrenenez, prestatze-  
co beta; irugarrenez,  
gaitz guzien damu an-  
di bat Jaunari escatu  
bear diozu, eta con-  
ziencia ondo esamiña-  
tzeco grazia, esanaz  
ondorengo

ORAZIOA.

Nere Jaungoico gu-  
ziz ona: nere gaitz gu-  
zietatic zugana biurtu

nai det, baña orretaraco nere pecatuen illuntasun ontan zure argui bear naiz. Mundu galduaren arguita erremedio bacarra Zu zera. Zure misericordi aundiagatic, arren, Jauna, nic bear dedan arguia indazu; nere conzienzi illuneco bazterrac ondo icusteco ta nere culpac, nere animan diran bezela, ezagutzeco.

Betor zure grazi oriez  
ondo ezagutu, eta esca-  
tzen duten damu ta  
proposituaz bear be-  
zela confesatzeco. Jau-  
na, ori nai det, ori  
erregutzen dizut, eta  
ala uste det iristea Je-  
sucristo zure Seme  
Jaunagandic. Amen  
Jesus.

AMA BIRJIÑARI TA SANTUAI  
ORAZIOA.

Zeruetaco Erreguñ,  
Jaincoaren Ama chit

santua ta Zugana ne-  
garrez datozen pecata-  
ri guzien misericor-  
dizco Ama, gurutzea-  
ren oñetan zure Se-  
mearequin nigatic  
igaro zinduen penac-  
gatic, escatzen dizut,  
artu nazazula zure la-  
guntzaren azpian, be-  
raren pasio eta mere-  
zimentu santuaz con-  
fesio ontan ni zuzen-  
tzeco. San Jose gu-  
ziz doatsua, Jesus

ta Mariarentzat bitar-  
tecoric maiteena, bia-  
quin eguizu nere pe-  
catuen eguizco damu  
bat iristeco Zeruco  
Santū ta aingueru guz-  
tiac eta zuc nere guar-  
daco Ainguerua erre-  
gutu ezazu, Peniten-  
zico Sacramentu san-  
tu au ondo artzeco  
presta nadin. Amen.

---



CONZIENZICO ESAMIÑA

---

Escola dutenac, liburu ascotan daucate esamiñ au eguiteco modua. Iracurten ez daquiten euscaldunai, daquiten batec iracurri, ta ori errazago eguiteco bidea nic eman nai diet.

Jaincoaren agin-duetan, ez daquitenac zenbat bider pecatu egin duten, beren

modura esan bear dute  
ONENBESTE BIDER GU-  
CHI GORA BERA. Eta  
b. g. g. b. letra oec  
ori esan nai dute.

**LENENGO AGUINDUA.**

Bizi guztico peca-  
tuac billatu nai ditua-  
nac, ezagüera zuane-  
tic asi bear du galdera  
bacoitzean.

Esamiñ ontan gal-  
de zure buruari: Jain-  
coaren legue ta dotri-

ña, edo jaquin bear  
ziran gauzac, beren  
garayan icasi zinduan  
edo ez: ta zure ume  
edo mendecoai eracu-  
tsi zĩniozcan edo ez.

Fede, Esperantz ta  
Caridadezco actoac  
eguin dituzun.

Fedeco gauzen con-  
tra ezer sinistu dezun,  
ezagaturic Fedearen  
contra zala oartu ez-  
quero orrelaco pensá-  
mentu edo dudari le-

curic eman diozun.  
Baña tentazioac nai  
eztezula, burura etor-  
tzea ezta duda, ta ez  
ere pecatu, quentzeco  
aleguiña zuc eguiten  
badezu.

Amets-gauzetan,  
sorguinqueri edo orre-  
lacotan sinistu dezun,  
edo orrelacoric eguin  
edo eraguin dezun.

Jaunaren miseri-  
cordiaz, ustea galdu  
dezun.

Jaungoicoaren, Ama  
Birjiñaren edo San-  
tuen contra itz gaiz-  
toric esan dezun.

Confesio edo Comu-  
nio gaiztoric eguin de-  
zun, pecatuac berariz,  
edo lotsaz, edo beste-  
la utziaz, dolore edo  
propositu gabe ta zen-  
bat confesio gaizto ur-  
tean izan diran.

Penitenziac cunpli-  
tu gabe utzi dituzun  
ta zenbat b. g. g. b.

Urteoroco confesio,  
edo Pazcuetaco Comu-  
nioa utzi dezun. Ba-  
ñan jaquin bear da  
Confesio gaizto, ta Co-  
munio gaizqui eguiñaz  
Elizarequin cunpli-  
tzen eztala.

Ezcontzaco Sacra-  
menturic, edo beste-  
ric, pecatu mortalean  
zaudela artu dezun.

Jaincoari edo san-  
tuai eguindaco es-  
queintzic cunplitu ga-

be zure culpaz utzi  
dezun.

Besteen debozioaz,  
birtutezco ejerzizio edo  
eguite onaz edo orie-  
tan dabilzanaz parric  
eguin dezun.

**BIGARREN AGUINDUA.**

Guezurraren gañean  
juramentu eguin de-  
zun: zenbat b. g. g. b.  
Ezerezen gañean, edo  
ezer ajola ezagatic ju-  
ramentua guezurrare-  
quin dan guzian, beti

da pecatu mortala.

Dudan edo zalan-  
zan, edo gauza jaquin  
gabe dudaren gañean  
eguitzat juramentu-  
ric eguin dezun.

Arretic gabe, naiz  
guezur naiz egui dala  
juramentua eguiteco  
oituratic izan dezun.

Gaitz andiren bat  
iñori eguiteco, ta cun-  
plitzeco gogoaz jura-  
mentu eguin dezun.  
Gaitz eguiteco asmoric



ezpazan ere, beti da  
pecatu mortala guezu-  
rrez eguiña dalaco.  
Gaitz aundia da masa-  
lleco bat ematea.

Pecaturen bat ez  
eguiteco edo gauz onen  
bat eguiteco, juramen-  
tu eguin, ta ausi de-  
zun, zenbat b. g. g. b.  
Gauza chiquien gañe-  
an juramentua ausi-  
tzea, pecatu beniala da.

Pecatu mortalen bat  
eguin duela bere bu-

rua alabatzea edo e-  
guingo duela esatea,  
naiz eguia naiz gue-  
zurra dala, beti da  
pecatu mortala orren  
gañean juramentu  
eguitea, ta cumplitzea  
guero, beste pecatu  
mortal bat da.

Justiciaren aurrean  
juramentu falsoric  
eguin dezun, edo bes-  
teri eraguin diozun:  
ta iñoren caltean izan  
ote zan.

Juramentuac berez nola diran, ta zer itzaquin juramentu diran edo ez diran, confesore jaquintsuac bacoitzari ondoena esango dio.

Juramentutzat itzen batzuec artu edo iduqui badituzu, ta guezurraz esan, edo dudan, orrela confesatu bear dituzu, ta guero-co jaquin ondo, juramentu noiz diran.

**IRUGARREN AGUINDUA.**

Bearric gabe, igande edo jayetan lan eguin edo eraguin badezu, beti da pecatu. Noiz dan beniala ala mortala, confesoreac esango dizu.

Jai egunetan zure culpaz Meza utzi dezun, edo besteri entzutea eragotzi diozun.

Batec uste bazuen Meza izango zala ta aleguiña eguin, ez

arquitzea ezta culpa.

Meza galtzeco zorian  
zure culpaz egon ze-  
ran.

(Bidezcoai aur chi-  
quidunai, ta eriaquin  
daudenai zer eguin  
bear duten, confeso-  
reac esango die.)

Mezaren pusca an-  
dian izquetan, batera  
edo bestera beguira  
egon zeran edo orrela  
besteri eraguin diozun.

Garizuman arrautz



edo esne gauzaric,  
Bulda artu gabe, jan  
dezun; artzeco asmoa  
ezta asco.

Oguei ta bat urte  
euqui ezquero, Elizac  
aguindutaco barau e-  
gunac eguin dituzun.

Primizi ta amarre-  
nac bear bezela pa-  
gatu.

**LAUGARREN AGUINDUA.**

Ontan umeac gura-  
soai zor diozcate *mai-  
tetasuna, beguira-*

*mena ta obediencia.*

Beguiria ezazu bada ondo, oyen contra gauza anditan uts eguin dezun: beguiria ondo zure eguitietan, itzetan ta beste gauzetan nola, zertan eta zenbat b. g. g. b. uts eguin dezun Jaincoaren lege onen contra.

(Gurasoen izenaz emen aditzen dira gurasoen ordeco guziac, eta nagusi-echecoan-

dreac.)

Orrelacoen testa-  
mentu eta aguinduac  
zure contura daudela,  
bete gabe utzi dituzun.

Emen gurasoac,  
orien ordeco, eta na-  
gusi-echecoandreak  
beguiratuco dute be-  
ren eguin bear andiai  
nola erantzun dien;  
umeac edo beren con-  
tucoac nola azi dituz-  
ten bai dotriñan, ta  
bai oitura onetan ta



Jaunaren bildurrean:  
edo gaitzeraco bideric  
eracuste gaiztoric e-  
man dien. Edo beren  
garayan estadua ema-  
ten dien edo ori ondo  
ta pecatu gabe artzeco  
bidean lagundu dien.

Jocuan, tabernan,  
edo gaiztaquerietan  
echeraco bear zana  
galdu duten edo eche-  
an biziera gaiztoa ema-  
ten duten.

**BOSGARREN AGUINDUA.**

Zure buruari edo  
besteri eriotz edo gaitz  
andiric deseatu dio-  
zun: edo iñor il dezun,  
zauritu, maquilladaric  
eman, edo beste gai-  
tzic eguin edo nai izan,  
zenbat b. g. g. b.

Iñor itzez bere ar-  
peguian gaizqui trata-  
tu dezun.

Aserre-aldi edo oca-  
sioric billatu dezun  
edo orrelacoetan ar-

quitu zeran edo peca-  
tu mortalean zaudela  
eriotzaco zorian, edo  
ocasiotan sartu zeran.

Iñoren gaitz andiaz  
zure biotzean atseguin  
artu dezun edo ñoren  
onaz damuric izan de-  
zun.

Diosal, agurric edo  
itza aserrez ñori uca-  
tu diozun. Gorrotoric  
biotzean ñoren contra  
iduqui dezun.

Madaricazio edo

maldizioric iñori bota  
diozun; jan edanean  
gueyegui zure osasun,  
edo buruaren caltean,  
ezagaturic sartu zeran  
ta guzian, zenbat b. g.  
g. b.

Aurric galtzeco edo  
abortoren batean cul-  
paric izan dezun.

**SEIGARREN ETA**

bederatzigarren aguinduetan.

Emen beguiratu  
bear dezu, zer pecatu  
eguin dituzun, asmoz

itzez ta eguitez eta no-  
requin eguiñac izan  
diran.

Gogorapen loyetan,  
eguiteco asmoric ez  
bazenduen ere, atse-  
guin artu dezun.

Itz lasairic esan de-  
zun, atseguin artzen  
edo besteri arrerazo-  
tzen diozula.

Canta loyac aditu  
edo cantatu, liburu edo  
paper gaiztoac iracu-  
rri dituzun.

Zure buruarequin  
pecatu ichusiric, ani-  
ma ta gorputza loituaz  
eguin dezun.

Ea itzez edo eguitez  
pecatu loyera iñor  
muguierazo dezun,  
aguertuaz pecatu era-  
guin nai ziñion perso-  
naren estadua.

Cristau bildurti ta  
lotsatia: Jaquin ezazu  
seigarrenaren contra-  
co pecatuac itsusien  
eta icaragarrienac di-

rala; beragatic eguin  
bear dezu beti zure  
anima ta gorputza al-  
dan garbiena aragui-  
co pecatuen cutsuric  
gabe, eduquitze-  
co aleguin guzia.

Jaquin ezazu con-  
fesorea eztala zure pe-  
catuaz arrituco; badi-  
ra oriec baño quezca  
gueiago ematen duten  
pecatuac; zuri oiec lais-  
ter barcatuco zaizqui-  
zu penitentziaren in-

darrez.

Egui oyec, guzien  
biotzetan ondo josiric  
baleude! ainbeste ani-  
ma galduco ez lira-  
que!

Baldin bada pecatu  
locatz oyetan sartu  
bazera etzaitezela ica-  
ratu.

Zuc zure animaren  
caltean biziera cha-  
rra, ta pecatuen gal-  
bideac ondo ezagutu,  
ta gogo osoaz ta e-



guiazco gorrotoaz, bi-  
de orretatic igues e-  
guiteco asmo eragui-  
llea badacarzu: pecatu  
guziac, ta orien aran-  
tzac ondo ta sustraye-  
tatic ateraco dira: zuc  
confesoreari esan edo  
onec zuri galdetu ta  
lagunduaz: ta onela  
zure anima confesio  
oso batequin bein be-  
tico Jaunaren paque  
gozo ta maitetasun  
santua gueldituco da:

ta aurreracoan lengo  
pecatu edo gauzaric  
ez gueyago nastu ta  
erabilli.

**ZAZPIGARREN ETA**  
amargarren aguinduetan.

Iñori ezer ostu edo  
quendu diozun.

Iñori bere gauzetan  
calte andiric eguin  
diozun.

Ezer ostutzen edo  
calte eguiten iñori la-  
gundu diozun: ezer  
estali edo orrelacoric

aguindu dezun: nola  
ta zenbat b. g. g. b.

Bide gaiztoetatic edo  
asmo gaiztoraco iño-  
ren ondasunic nai izan  
dezun: asmo ona da-  
nean ondasunac nai  
izatea ezta pecatu  
mortalá.

Gaiztaqueriric jocue-  
tan, artu-emanetan,  
neurri edo pisuetan e-  
guin dezun, zer calte ta  
nola eguin dezun, edo  
gaizqui eramanda, eta

zenbat b. g. g. b.

Daquizula iñori be-  
rea quendu, edo zor  
diazula, biurtu eguin  
gabe egon zeran edo  
confesoreac aguindu  
ta eguin bear dezuna,  
naguitasunez bete ga-  
be, al dezula, egon  
zeran, orobat beste zo-  
rrac pagatu gabe orre-  
la utzi dituzun.

Artzecodunac, lan-  
guilleac, mirabe edo  
serbitsariac berena ar-

tzeco, ordaindu nai  
ezic, al dezula gaizqui  
erabilli dituzun, ta  
zer calte ontan eguin  
diezun.

Seme ta alaba ta  
umeac beren gurasoai  
edo morroiac beren  
nagusiai ezer ostu  
dien, ascotan, puscaca  
edo nola ta zenbat b.  
g. g. b.

Relijioan sartzen  
iñori eragotzi diozun;  
edo conseju gaistoz

atzeratu, edo orrela  
eragotzi diozun.

**ZORTZIGARREN AGUINDUA.**

Testimonio guezu-  
rrezcoric iñori alcha-  
tu diozun, edo iñoren  
calte andian guezu-  
rric esan dezun, ta  
nola.

Gauza jaquin, edo  
aguiria eztala, iñoren  
pecaturic aguertu de-  
zun, edo gauza astu-  
netan maissiatu dezun.

· Bacoitzari bere izen

ona gaizqui quendu  
edo galduerazo diozun,  
ta bear bezela biurtu  
diozun, ala ez.

Issilleco gauzaric  
esan, edo carta bear  
eztanic iduqui dezun.

Juizio gaiztoric,  
ezeri ez dagoquiola,  
iñorentzat equin de-  
zun.

Azquenic, bacoitzac  
bere bizieraco bearrac  
jaquin ondo, ta begui-  
ratu edo icusi bear

ditu; zertan utseguin  
duan jaquiteco ta obe-  
to zuzentzeco.

Beste culpa asco  
emen ezdaudenac, ja-  
quiñac dira, edo gu-  
chitan oi diranac, ta  
berariaz utzi ditut: al-  
de ontatic on da, du-  
da dezun guzian pe-  
catutic ascatzeco con-  
fessore oitu, jaquintsu  
bati beti galdetzea, au  
edo ori pecatu dan, ta  
zer eguin bear dan.



Onela zure conzien-  
zico esamiña, alegui-  
ñaz igaro ta bereala  
Jaincoagana biurtu  
zaitez: eguin dizuna-  
gatic esquerrac emaiz-  
catzu, ta zure pecatu  
ta berari eguindaco  
calte guzien barcatzea  
escatu, esanaz biotze-  
tic urrengo orazioa.

Esamiñ ondorengo orazioa.

---

O nere Jainco, ar-  
gui guzien Aita ta

doai on guzien emallea! Ezagutzen det, zure graziaz dala, nic eguin aldezaquedan on guzia. Zuc nere anima salbatzeco asmo au eman didazu. Zuc nere pecatuac billatzeco arguia, ta arquitzeco grazia. Zuri, bacarric bada, Jauna, gloriguztia: Zuri nere biotzeco esquer on ta azquen gabeac. Amen.

Santu ta Aingueru

guziac, ta are milla  
bider obeto Ama Bir-  
jiñac eta zure seme  
Jesusec alaba zaitza-  
tela orain ta beti niri  
eguin didazun mise-  
ricordi andi onegatic.  
Amen.

**BARCAPENA**

**ESCATZECO ORAZIOA.**

---

¡Ay nere Jainco gu-  
ziz ona! Nere pecatuen  
artean sartu naiz, ta  
arrituta guelditu naiz.  
Ezdaquit nundic asi ta

ez zer esan. Zure zuzentasan aserrearari be-  
guiratzan badiot ta  
contuetan nerequin  
sartzen bada, galdua  
naiz, Jauna; nere cul-  
pa eta zure contraco  
gaizqueriac, asco di-  
ralaco. Buruco illeac  
ta ichasoco ondar aleac  
baño gueyago dira, ta  
orien carga astunac  
betico ondatzen nau.

¿Zer eguin dazaquet  
bada, estura ontan?

Lotsaz ta icaraz nere ezerezera ondaturic, zure zuzentasunetic zure ontasunera biur-tzen naiz, ta oni nere alde deitzen diot. Badaquit, Jauna, zure misericordiac azque-nic ez duala, ta nere gaiztaqueri guziac ba-ño andiagoa dala. Bearra det, Jauna, bearra det: ta au obeto ar-quitze-co, Santu ta pe-catari penitente guzien

damua, ta orien egui-  
azco dolore ta asmoa  
orain iduqui nai nu-  
que.

¡0 Jaun guziz san-  
tua, pecatuari gorroto  
gabe ezin beguiratu  
diazuna! Nere Jesus,  
zure Semeac, pecatuen  
contra iduqui zuen, ta  
zuc ta arc urien contra  
beti dezuten ezin esan  
alaco gorrotoa bera,  
zure zuzentasun aries-  
queintzen diot: ta ori

da zure ontasunari da-  
goquion ordaintze  
osoa; ar ezazu, bada,  
Jauna, esqueintz andi  
au: ta ez nigatic, ezpa-  
da zure Seme Jesu-  
cristo gure Jaunaga-  
tic, ta bere izenean  
esqueintzen dizut.

Ez arren, Jauna,  
nere erru andiai be-  
guiratu baizican aren  
Gurutzeko oñaze, ne-  
que ta naitasun guz-  
tiai: an, nigatic ta ni-

ri barcatzeco, oñazez  
ta deadarrez erregutu  
zizun: ta zuc bere biotz  
onagatic Jesus onari  
aditu ziñion. Indazu  
bada, ondo confesa-  
tzeco bear dedan gra-  
zia. Amen.

Emen quezca ta bil-  
dur guzietatic asca-  
tzeco, Contriziozco E-  
guintz asco, confeso-  
rearen eñetara baño  
len, eguin bear dituzu,  
modu onetan.



**CONFESATU BAÑO LENAGO**  
**Eguiteco Contriziozco Eguintza.**

---

Jauna, zu zera nere  
Jainco guziz ona: ta  
orregatic biotzetic da-  
mu det zu ofenditua,  
ez gueyago ofenditzeco  
asmoarequin.

Jauna: zu zera ne-  
re Aita guziz maitea:  
ta orregatic damu det  
biotzetic zu ofenditua.

Jauna zu zera nere  
jabe guziz santua ta  
orregatic damu det

zu ofenditua.

Jauna: zu zera nere onguille guziz maite-tsu ta doai guzien emalle chit ugarria; ta orregatic biotz guztitic damu det, nere pecatuz zu ofenditu izana, queyagoren queyago zu ez ofenditzeco asmoaz.

¡O Jauna! ¡Zu zera nere Salbale, ta eman nai didazu Zeruco gloria! Orregatic, bada ta guztiz ona zeralaco,

damu det, Jauna nere pecatuaz, zu ez gueiago ofenditzeco asmo eguiñaz.

¡Ay nere pecatu zori gaiztocoac! ¡Ay beñere eguin ezbanitu! ¡Ay zer zoriona, milla bider il banintz nere Jaungoico maitea ofenditu baño lenago!

Jauna: ez gueyago zuri ofensaric; il bedi pecatua, ta bizi bedi nere Jaungoicoa. Jau-

na, ni tzea nayago det  
il, zu ofenditu baño.

Beti ondo, damu,  
asmo on ta frutuaz  
confesatzeco, iru go-  
gorapen jaquiñac di-  
ra oyec. Lenengoa, e-  
dozein confesoregana  
joatean, contu eguizu,  
Calbarioco mendian  
Gurutzepean, Jesusen  
oñetan jartzen zerala.  
¿Ama Birjiñaren, on-  
doan an arquite bazi-  
ña, zer eguin edo

esango zenduan? Bi-  
garrena. Fede bizi ba-  
tez sinistu, eta esan  
zuregan: orain confe-  
satzen naiz Jesucris-  
torequin ta ez guizo-  
narequin. Cristoc nere  
pecatu guziac daquien  
ezqueroz lotsaz ez utzi  
ezer. Irugarrena, Con-  
fessio ontan Jaincoac  
edo aingueruac esan-  
go balizu; au zure  
atzeneco confesioa da.  
¿Nola confesatuco zi-

ñaque?

Iltzeco bezela beti confesa zaite: bada esan Zure erruac garbiróta ez besterenac. Gue-ro confesoreac zer esaten dizun, zer ongui esanac, zer penitentzi ematen dizquizun ondo aditu: damuz absoluzioa artu, ta jaiqui Jaincoari esquerrac ematera, ta comulgatzeco ondo prestatzera.

---

(Au bera beste toqui batean, ondo confesatzeco ta ondo comulgatzeco orazioaquin arquitecu dezu.)

**CONFESIO AURRERACO**

IRU GOGORAPEN

---

Sacramentu ontan bear dan frutua ateratzeco confesio guztietan iru gauza ondo pensatu bear dituzu.

Lenengoa: Edozeiñ confesoreren oñetan jartzean Galbarioco mendian Jesusen Gurutzepean arkitzen zerala.

OTOITZA.

¡Ay Ostiral-santuz  
ni an arquitecu banintz!

Escu Liburua. G.—5.

zer negar, zer biotze-  
co deadarrac eguingo  
nituan! ;Ay nere Salba-  
lle maitea! nere peca-  
tuac ipiñi zaituzte era  
negargarri orretan. Ez  
Jauna gueyago ibillera  
gaiztoric, baizic bizitza  
berria: ala ematen di-  
zut itza zure grazia-  
requin batean, ta uste  
osoa daucat barcatuco  
dizquidazula nere pe-  
catuac zure ontasunac  
dirala bide.



**Bigarren:** Confesatzera zoazen guzian, federic bizienaz pensa ezazu, ez guizon baten, ezpada Jesucristoren oñetara zoazela.

OTOITZA.

Ay nere biotzeco  
Jesus! Baldin Jeru-  
salenen zure egunetan  
bizi izan banintz, edo  
zu orain, orduan be-  
zela, emen aguertuco  
baziña, zure oñetan  
belaunico jarriric nola  
esango nizuquean:  
ona, Jauna, peccari-  
ric galduena; peccatu  
aundi ascoren gaitz

gogorren azpian ondaturic arkitzen naiz. Zuzera nere animaren sendaguillea. Zuc daquizu nic baño obeto nere gaitz guzien berri. Arren, zure misericordiagatic senda nazazu. Banua bertatic, zuri nere pecatu guziac zure apaizaren oñetan aitortzera. Ta zuc nere berri daquizun ezquero, ez lots ta ez bildurric izango ez

det, nere barren guzia  
aguertzeco.

**Irugarren:** Confesatzen zeran guz-  
tian contu eguizu ori izango dala az-  
quenecoa, ta iltzeco confesatzen ze-  
rala. Il bearra fedeco gauza da ta  
bear bada au izango da atzeneco zure  
confesioa.

### OTOITZA.

Nere biziaren ordu  
ta egun guzien jabea!  
Zuc esango bazinit, au  
dala nere atzeneco  
confesioa, iltzeco zo-  
rian nagoala, bereala  
ill bear dedala, edo  
nere guardaco Aingue-

ruac zuregatic gazti-  
gu au eguingo balit:  
ca, orain confesatu eta  
bereala il bear dezu:  
elzera gueyago confe-  
saluco; ¡Jesus milla  
bider! Agur esango nu-  
que, agur mundua:  
quen, quen ortic nere  
lagun charrac, urru-  
tira betico nere biotze-  
tic oitura charraac: zo-  
azte emendic, ondazun  
gaizqui eramanaac; zo-  
aste nere ibillera gaiz-

to ta munduco atse-  
guin guezurtiac: zoaz-  
te anima ta gorputza  
galdu didazuten jan  
edan gaiztoac: zoazte  
guzioc oraindaño zo-  
ratu eta galduric idu-  
qui nazutenac: zoazte  
betico nigandic: il bear  
det, Jaincoac ala dio  
ta ala nai du. Ay nere  
Jesus ona, nere jabe  
maitea! ta, bai damu  
detala. Zu nere pecca-  
tuaz ainbeste bider

ofenditua! damu det  
lenago bear bezela ez  
ondua. Zu, nere Jain-  
co ta nere Aita ona,  
maitatu ta serbitu bea-  
rrean ainbeste bider  
ofenditu zaitut.

¿Nun da Jauna nic  
eman bear nizun on-  
ra ta beguiramentua?  
¿Nun da nic zuri bear  
nizun naitasuna? ¿E-  
tzan neretzat onrari-  
asco zure seme izatea?  
Bai nere Jesus ona.

Damu det Jauna, nere  
biotz guztitic zu ofen-  
ditua, orren ona ta  
Santua zeralaco. Zu-  
gan Jauna arquitzen  
dira Zeruco Santuac,  
Aingueruac eta aur  
guziac beñere ezin  
esan eta adituco ez di-  
tuzten bicaintasun,  
aunditasun eta onta-  
sun guziaz. Zu orre-  
lacoa izanic, damu det  
zu ofenditua, Zu zera-  
nagatic bacarrie. Atze-

ratuco ditut nere oitu-  
ra ta eguite gaizto  
guziac, eta eguingo det  
penitenzia nere pecca-  
tuen ordez, Zu maite  
zaitudala adieraziaz  
ondorengo biziera be-  
rri batequin. Amen.

Onela prestatu nai-  
co dezu iltzeco gara-  
yan. Ori gogoan ongui  
artu ezquero ondo  
eguingo dituzu urren-  
go zure confesio guzi-  
guziac.



Oraindano esan da-  
netic ezagutuco dezu  
conzienzico esamiña  
eguin eta beste gabe  
confesatzera dijoaze-  
nac, gaizqui confesa-  
tzen dirala damu ta  
asmo on gabe, eta  
confesio oso ta guzizco  
bat eguiteco premian  
arquitzen dirala.

Gañera damu ta  
asmo au iristeco,  
bear da ascotan con-  
zienzia esamiñatzen

baño beta gueyago.

Aurreco egunetic edo lenago lan onetan jardun gabe, goizean lasterca jantzi eta Elizaraco bidean eguin dezun esamiña, eta damu ariñarequin beste gabe bereala confesatzea gauza gaiztoa da, zalapartan nequez ondo gauza oec eguiten oi diralaco. Beintzat etzenduque naico iltzeco orrela presta-

tzea.

Lenagoco pecatuac  
barcatuac egon arren  
confesio ona dala bi-  
de, aen eta beste gu-  
zien gañean, artu bear  
da damua confesatuac  
ezpaleude bezela.

Guero confesorearen  
aurrean belaunico ja-  
rriric ziñatu zaite eta  
esan biotzetic: «Ni pe-  
cataria edo Nere Jesu-  
cristo Jauna» eta gue-  
ro aurreratuco zera

confesoreagana isil ta  
arroqueri gabe eta  
esango diozcazu zure  
pecatuac diranac di-  
ran bezela.

**CONFESIOA ONDO EGUIN**

TA GUERO ESAZU

OTOITZA.

¡Oh nere Jaun biotz  
biguñ ta erruquiz-  
co Aita! zure odol  
ederrean nere anima  
bere culpen loyetatic  
garbitu nai izan dezu.

Zuri esquerrac, Jauna,  
pecatuen eriotzatic  
ascatuta zedorren sa-  
crifizioco misterioac  
zure Sacramentuan  
eman dizquidazulaco.  
Eta orain al dezun  
federic bizien ta nai-  
tasun irazequienaz zu-  
re biotzean comulga  
zaitte. Au ta ez beste-  
ric da espiritual Co-  
munioa. Aita ¿baña de-  
bozio ori nola eguin  
dezaquet? Ara nola: fe-

de bizi ta biotzetic esa-  
yozu urrengo





ONDO COMULGATZECO  
JARDUERA.

---

Gauza jaquiña da,  
confesatzen dan guz-  
tian ezdala bearra co-  
mulgatzea, eta cris-  
tauric onenac ascotan  
guelditzen dirala co-  
mulgatu gabe.

Beinic beiñ, confe-  
sio oso ta guziracoa  
eguiten danetan, bi

edo iru confesa alditan  
ez da comulgatzen. Eta  
uts aundi ta gaizto bat  
da pensatzea pecatuac  
ez dirala barcatzen,  
comulgatu arteraño.

Ala zuc uts equin  
ez dezazun ontan, ez  
dezu beñere comulga-  
tu bear confesoreac  
aguindu gabe, utzitzen  
dezula umildade aun-  
diarequin, ez juateco  
esaten dizunean; ta  
baldin aguintzen ba-



dizu comulga zaiteze-  
la, prestatuco zera on-  
dorengo gogorapen  
onequin:

GOGORAPENA.

---

Pensa ezazu ondo  
nor datorren comu-  
nioan zugana. Jesu-  
cristo gure Jauna,  
Jaungoico eta eguiz-  
co guizona, bera dan  
guzia, Ostia santuan  
dator, zuri laguntzera.  
Eta zu ¿nor zera?

OTOITZA.

¡O Zeruetaco Erre-  
gue, Jaun aundi, nere  
Jesus maitea! ¡Zu ni-  
gana Zerutic jachi ze-  
ra? ¡Au zer da? ¡Nori  
onelaco gauzaric zure  
ontasunari baizic go-  
goratuco zitzayon?  
¡Izan ote diteque, (eta  
fedeco eguia da) nic  
Zu, nere Jaun aundia,  
Osti chiqui batean ne-  
re biotzean artu bear  
zaitudala? ¡Misterio gu-

ziz ezcutatua ta guziz  
miragarria! Zer eguin  
dezaquet nic ezpada  
zure aurrean arritu,  
macurtu ta nere bio-  
tzeco ateac zuri pozic  
idiqui, nere animaco  
ostatu argal ontan Zu,  
Erregueric aundiena,  
artzeco? ¡Norc luquean  
zeruaren garbitasuna!  
Aingueru ta Santuen  
espiritu guzia, eta zu-  
re Ama Birjiñaren bir-  
tuteac, zu orain bear

bezela artzeco, norc  
lituquean! Eguia da,  
ni peccatari galdu bat  
naizela; baña, Jauna,  
zu zera nere sendagai  
guzia. Atoz bada, atoz  
ontasun guzien Jabea.  
¡O nere emalle guziz  
aberatsa! Zure ontasun  
azquengabea, eta zure  
emanayac eracarri  
zaitu Zerutic lurrera,  
zure ondasunac zero-  
rrequin batean niri  
emateco. ¡Biotz on ber-

din gabea! Badaquizu,  
zu artzeco gai ez naize-  
la, ta ala ere orregatic  
zure naitasunac zacar-  
tzi nigana, bearra dau-  
cadalaco. Indazu fede  
bizi, esperantz eta ca-  
ridade irazequi bat,  
Zuc nayen dituzun  
beste birtuteaquin, zu  
nere animan ondo ar-  
tzeco, eta aurrera obe-  
to maitatu ta serbitze-  
co. Amen Jesus.

**Apaiza Comunioa ematera datorre-  
nean, aurreratuco zera comulgatzeco  
toquira fede biziz beteric, eta bendi-  
zioa ta barcapena ematean, zuc ere  
Jaunari escatuco diozcazu. Jauna ar-  
tzen dezunean escatu aoz edo bio-  
tzez, zerorrec debozio gueyago dezun  
eran.**

## **COMUNIOAN.**

**Jauna, ez naiz ni  
Zu nere echean sar-  
tzeco gai bañan asco  
da zure itz bat, nere  
anima sendatzeco ta  
salbatzeco. Amen Je-  
SUS.**

**Guero Jauna artzean egon bear  
dezu gueldi debozioz; burua alchatu  
zuzen, beguiac lurrean edo ichita;**

aboa era onean zabaldu, ta mingaña  
pisca bat atera bear dezu, eta orrela  
comulgatu bear da.

Esquerrac emateco erara jarri zaite  
toqui on batean, ta aleguiñaz ez beste  
gauzari beguiratu ezpada zure Jaun  
aundiari bacarric: zure sentidu gu-  
ziaz zere barrenean debozioz sar zaite,  
etorri dan Jesus maiteari itz eguiteco,  
eta esquerrac emateco esanaz onela:

OTOITZA.

¡Ongui etorria ze-  
rala nere Jaun aundia  
eta nere guztia! ¡O no-  
lacoa dan zure naita-  
sunaren indar berdin  
gabea! ¡Nori beñere  
gogoratu, Jauna, zuc  
niri onelaco mesedea  
eguingo ziñidala? ¡Ay

nerre Jesus guziz ona!  
¡Ezin, Jauna, ezin bear  
bezela ni zure gai  
izan! ¡Ay, eta zer os-  
tatu cazcarra nere bio-  
tzean artu dezun! Ba-  
ña Zu zera bacarric  
Zeruan eta lurrean  
nerre Jaungoicoa. Zu  
asco zaitut bacarric, ta  
zurequin nago chit  
aberatsa.

Ea bada, atozte ba-  
rrena, atozte nere be-  
guiac, nere escuac ta





besti sentzun, atozte guziac zuen Jabe maitati oni ongui etorria emateco, ta guzioc Jesus biotzean ta beraren antzera santificatu eta biziera berri bat eguiteco bear dezuena escatzera. Zuen guzien sendagaya da bera. Nere gogoramén, adimén ta naya: atozte guzioc batean betico zuen Jabea adoratzera ta goratzera. Amen.

¡Zeruco nere etor-  
 cari aberatsa ta ema-  
 lle ugaría! Bada etzera  
 ostatu cazcar ontara  
 alperric irichi, eta ez  
 utzic nigana etorri,  
 ezpada, ondasunez be-  
 teric, nere Jaberíc  
 onena bezela. Ondo  
 beartua nago zutzaz.  
 Badezu nigan nun  
 zure doayac ondo ipi-  
 ñi. Ona, Jauna, zure  
 oñetan eta beguien au-

rrean nere anima illu-  
na: orra nere beguiac,  
mingaña, escuac eta  
beste sentzun galdu  
eragabeac diranac, zuc  
sendatu, zure bendi-  
zios bete ta zure an-  
tzera eguiteco.

Nundic escatzera asi  
ezdaquit Jauna. Zuc  
nere berri obeto da-  
quizu, eta zuri gogoa  
eguiteco zer ondoen  
dagoquidan. Zu ser-  
bitzeco, zure nai go-

zoa nere echecho ta  
canpoco lanetan, nere  
estutasun ta asnas gu-  
zietan beti eguiteco,  
zure grazia indazu: eta  
orrequin aberats ta  
zori onecoa beti izan-  
go naiz. Amen.

OTOITZA.

¡Zeruco ondasun  
guzien Jabea! Ez di-  
zut utzico nere anima-  
ren eche argal ontatic  
irtetzen: ez dizut utzi-  
co nigandic joaten ni

utsa, ta beartua utzi-  
ric. Ez, Jauna, nere  
ostatu ontatic juango  
etzera ni zure bendi-  
zios bete arteraño.  
Guzien jabea zera eta  
esqueco guzien ongui-  
llea: badezu nigan on-  
do zer eguin. Orra,  
Jauna, nere anima,  
lur legorra bezela, zu-  
re euri gozoaren es-  
que. Orra, ontzi utsa  
bezela, Zuc graziaz be-  
tetzeco. Badaquizu,

zure antzeco umiltasun eramankuizun, caridade, issiltasun, animaco ta gorputzeco garbitasunaren zer bear aundia daucadan. Oriez gañera, indazu zure bendizioa nere biotz au, nere beguiac, mingain ta beste sentzunac zure gogora zuzentzeco. Zure biotz santuagatic biotz berrigarbi bat indazu, zure antzera biziera berr

bat eguiteco, nere ale-  
guin guziaz zuri ja-  
rraitzeco, nere zorio-  
na daucan zure naya,  
orain lurrean eguin  
eta guero Zeruan beti  
eguiteco. Amen.

**ANIMA CRISTI.**

Aita San Ignazioc beti esaten zuan

**OTOITZA.**

Jesusen anima, san-  
tifica nazazu.

Jesusen biotza, ira-  
zequi nazazu.

Jesusen gorputza,

Escu Liburua. G.—7.

salba nazazu.

Jesusen odol onguillea, zure onez bete nazazu.

Jesusen biotzeco ura, garbi nazazu.

Jesusen Pasioa, senda nazazu.

¡O Jesus ona! entzun nazazu.

Zure zaurien artean gorde nazazu.

Zugandic irtetzen utzi ez nazazu.

Etsai gaistoetatic



ascatu nazazu.

Nere eriotzàco or-  
duan deitu nazazu.

Zugana joatea a-  
guindu zadazu,

Zantu guziaquin  
zu beti goratzeco beti  
betico. Alassen.





# AMA BIRJIÑARI

TA SANTUAI

OTOITZA.

Zeruco gure Erre-  
guiñ Ama Birjiña San-  
ta Maria, nere Salba-  
tzalle ta Jaun aundi  
onen Ama maitea!  
Zeruco Aingueru ta  
Santuac atozte nere  
eche beartsu ontara,  
zuen glori guztia ne-

requin batean nere  
biotzean adonatu eta  
bedeincatzera, eta ne-  
re uts guziac betetzera.

¡Nere biotzeco Ja-  
ungoicoa! Zure santu  
guziac beti bedeín-  
ca zaitzatela, neri e-  
guin didazun mesede  
onegatic. Ezer ez det,  
Jauna; zuc daquizu  
nere beartasunaren  
berri. Zuri esquerrac  
emateco zer esqueñi  
edo aguindu ez dau-

cat, ezpada nere biotz  
otz eta ill au. Orra,  
Jauna, nic dedan da-  
na ta naizen guzia  
zurea da, ta ordu one-  
an izan bedi betico  
zurea.

¡Ay Jauna bai gau-  
za laburra, bai guchi  
dala biotz bacar bat,  
eta ori ain epela ta  
ezereza, nerea bezela  
danean! ¡Ay Zeruco  
Santu ta Aingueru irá-  
zequi guzien espiritua

ta munduan diran  
guziac nic banitu zu  
beti adonatu ta mai-  
tatzeco! Guziac nai ni-  
tuzque, ta diranac,  
Jauna, zuretzat, zuri  
amore onez guziac es-  
queintzeco eta esquer  
onac emateco. Amen.



# SANTA TERESAREN

GAZTIGUAC.

Ill zaitte, nai bade-  
zu bizi. Penatu, nai  
badezu gozatu. Jechi,  
nai badezu igo. Galdu,  
nai badezu irabazi.

Gora Jesus ta Maria.





## MEZA SANTUA ZER DAN.

---

Eguzquiac Zeruco  
izar guzien edertasuna  
estaltzen duan bezela,  
ala Meza Santuac ga-  
ñez eraguiten die lu-  
rreco debozio guziaz,  
gure Erljio Santuac  
daucan gauzaric aundi  
eta ederrena dalaco.  
Baña ¿zer da Meza?

Da Jesucristo gure Jau-  
nac bere gorputza eta  
odol onguilleac esquei-  
tzen diozcan bere Be-  
tico Aitari oguiaren  
eta ardoaren antzen  
azpian. Sacrificio edo  
jaincozco esqueintz mi-  
rariz betericaco bat.

Jesucristoc ostegun  
santu gabea, edo atze-  
neco aparian eguin  
zuan Sacrificio mira-  
garri ura bera da; Be-  
tico Aita gurutzean il-



tzean esqueñi ziozcan  
oñaze ta eriotzaren  
esqueintza berri bat;  
ta azquenic, bere Pa-  
sio Santuco oñaze,  
ibillera ta misterioaren  
eta oetan eracutsi zi-  
gun naitasun irazequi  
neurrigabecoaren o-  
roipengarri bat.

Jaquin bear dituzu,  
Mezaco Sacrificio San-  
tuaz San Agustinec  
eracusten dituan lau  
gauza: *Nor dan sa-*

*crificio au esqueintzen duana; nori esqueintzen zayon; zer esqueintzen dan; eta norentzat edo zertaraco esqueintzen dan.*

Orain bada, ¿nor da Mezaco Sacrificio Santu au esaten duana edo Sacrificio guziz beneragarri au eguiten ta esqueintzen duan Apaiz lenena? *Jesucristo gure Jau-*

*na, Betico Aitaren  
semea da.*

¿Nori edo zeñi es-  
queintzen dio? *Betico  
Aita berari.*

¿Eta zer esqueintzen  
dio? *Bere gorputz  
eta odol ederra bere  
irabazi azquen ga-  
beco guziaquin ba-  
tean.*

¿Norentzat edo zer-  
taco esqueintzen dioz-  
ca? *Jaungoicoa on-  
ratzeco eta gure one-*

*raco, mesede asco  
iristen dizquigula es-  
queintz miragarri  
onen bidez.*

San Agustinec be-  
rac dio, Mezatan gau-  
za bi guertatzen dira-  
la: bata aguirian icus-  
ten dana edo canpo-  
coa. Bestea icusten ez  
dana edo barrengoa,  
ta da *Jaincoaren se-  
mea bere Gorputz  
ta odola Betico Ai-  
tari esqueintzen. Ba-*

rrengo Sacrificio onec  
ematen dio canpocoari  
bere izate, edo bizia.  
Baña ¿zertaco? Orain  
esango diran lau gau-  
zetaraco.

*Lenengoa:* gu la-  
burrac gueralaco,  
Jaincoa azquengabea-  
izanic: eta Jaincoaren  
Semeac gure izate edo  
naturaleza daucan,  
berez persona azquen-  
gabecoa dalaric, au-  
guc esqueñiaz ematen

diogu Jaincoari gu-  
gandic nai duena eta  
aren anditasunari on-  
doen dagoquion onra  
ta gloria.

*Bigarrena:* da gu-  
re Jaincoagandic artu  
ditugun mesede ta la-  
guntza guzien esquer  
onac emateco.

*Irugarrena:* da Sa-  
crificio santu onen bi-  
dez Jaincoagandic gu-  
retzat eta gure adis-  
quideentzat nai ditu-

gun eta on diran medeac iristeco, bai animaco ta bai gorputzecoac.

*Laugarrena:* da Jaincoaren aserretasuna biguntzeco arenzuzentasunac pecatariac bereala castigatu ez ditzan, eta bere erruquitasunaren bidez eman deigun laguntza egoera errucarrari artatic irtetzeco.

**Emen ipintzen det Espiritu Santuac  
Trento·co concilioan eracutsi  
zuan dotriña.**

---

*Lenengoa,* Santu-  
tuen onran elizan me-  
zac esaten badira ere,  
sacrifizioric santuai  
esqueintzen etzaye, ez-  
pada Jaungoicoari,  
au bacarric santuac  
eguin ta gloriaz eta  
onraz coroatu zituana  
dalaco.

*Bigarrena,* San-  
tusetic aurrera Mezaco



gauza guziac Jaungoi-  
coaren santutasun  
aundia aditzera ema-  
ten dutela, edo Miste-  
rio oriec Zeruco jain-  
cozco usaia dacartela.

*Irugarrena*, Espi-  
ritu Santuac Conci-  
lioan aguintzen die  
(Mandat S. Sinodus  
etc. Ses. 22, cap. 8),  
animen contua dau-  
caten Apaizai, Meza  
Santuco gauzac beren  
Ardiai ascotan eracus-

tea. Apaizaren orna-  
mentu edo janziac,  
itzac, gurutze, seña-  
le eta zeremoni guztiac  
misterioz beteac dau-  
de. Euscaldunac beren  
debozioraco orieci al-  
dan ondoena jaquitea  
on da; ta Santuen do-  
trina orain nic eman-  
go diet onela:

MEZACO MISTERIOREN  
DOTRINA.

---

Apaiza prestatu ta  
ornamentuac jazteco

Sacristian sartzeac  
esan nai du Jesucris-  
to Ama Birjiñaren sa-  
bel garbian sartu zala  
ta gure araguizco so-  
ñecoa jantzi zuala Be-  
tico Aitari bere sacri-  
fizioa esqueñiaz.

*Amitoa*, da Apaizac  
burutic bera jartzen  
duan estalqui zuri bat:  
eta esan nai du, ju-  
duac Jesucristoz par-  
eguiteco ta masalle-  
coac berari emateco

arpeguia estali ziotela.

*Albac*, Cristo zuriz  
jantziric Erodesec bur-  
laz Pilatosi bialdu zio-  
la.

*Zinguloac*, loca-  
rriz gugatic lotu zu-  
tela.

*Manipulo* ezquer  
besocoac, azotatzeco  
escuac lotu ziozcatela.  
Ezquerrean ori jartzen  
da Jesusen biotzeco  
naitasuna, gugatic azo-  
teac artzean, ta guc

zor diogun naitásun  
andia eracusteco.

*Estola*, lepotic gurutzaturic artzen du eta esan nai du Jesus irugarren aldian gurutzea artzeco locarri gogor aundiz lepotic lotu zutela.

*Casulla*, guzien gañean artzen dana, par eguiteco gorrizco soñecoa jantzi ziotela edo gurutzean jositze-co soñeco joscura ga-

bea quendu ziotela.

Jantzi edo Ornamentuac oyec dira.

Mezac iru zati edo pusca ditu *Ofrenda-raño* bat, *Pater noster* edo *Comuniora* bestea eta *azqueneraño* bestea. Bata da sacrificioraco prestatzea; bestea esqueñi, consagratu edo comulgatzea, eta irugarrena da Jaunari esquerrac ematea.

Ondo icusiric zer  
aditzera ematen duten  
Misterio oyec, esango  
dezu:



Aitaren, eta  
Semearen, eta  
Espiritu San-  
tuaren izenean  
✠ Amen.



## MEZAREN ASIERA.



**Gogora ecartzazu Jesucristoc gu-  
re pecatuac bere gain arturic  
orien zorrac ordaindu zituala.**



OTOITZA.

Jauna, entzutera  
noan Meza au esquein-  
tzen dizut eguin diz-  
quidazun mesede gu-  
zien esquerrac emate-  
co, nere ta beste gu-  
zien pecatuen barca-  
pena iristeco, eta in-  
dazu Zeruco bidean  
bear eta on izango  
dedan grazia, batez  
ere pecatutic alde egui-  
teco eta bizitz onean  
irauteco doaya. Amen.

**INTROITOAN.**



**Gogora ecartzazu legue zarreco  
santuac Jesucristo guizon  
eguiteco zale zendela.**

OTOITZA.

Nere Jesus maitea,  
nere anima zure nai-  
tasun santuan iraze-  
qui zazu, nere peca-  
tuac ezagutu eta orie-  
quin zuri gaizqui  
eguindaco eguiazco  
damutasuna nere bizi  
guzian iduqui deza-  
dan. Ala izan dedilla.



**KIRIE-ELEISON.**



**Gogora ecartzazu irutasun edo  
Trinidade chit Santuari erruqui-  
tzea escatzen zayola.**

OTOITZA.

Jauna, erruqui zaitenitzaz. Jauna, erruqui zaitenitzaz. Jauna, erruqui zaitenitzaz. Jesucristo, erruqui zaitenitzaz. Jesucristo, erruqui zaitenitzaz. Jesucristo, erruqui zaitenitzaz. Jesucristo, erruqui zaitenitzaz. Jauna, erruqui zaitenitzaz. Jauna, erruqui zaitenitzaz. Jauna, erruqui zaitenitzaz. Jauna, erruqui zaitenitzaz.

---

**GLORIA IN EXCELSIS DEO**



BEUERNY

**Gogora ecartzazu aingueruag  
Jesusen jayotzan cantatu  
zutela.**

OTOITZA.

Aingueruac goratu  
dezatela, Jauna, zure  
ontasuna zu jayo ziña-  
nean bezela. Orain  
gure animetan zure  
graziaz jayo nai dezu.  
Goratzen, bedeinca-  
zen, adoratzan eta  
glorificatzen zaitugu.  
Zure glori aundiagatic  
esquerrac ematen diz-  
kitzugu. Gure erruen  
arcapena escatzen  
zaitugu. Amen.

**DOMINUS VOBISCUM.**



**Gogora ecartzazu Jesucristo guizonai ezagutzera eman zitzayelata iru Erregueac adoratu zutela.**



OTOITZA.

Jauna, Apaizac Santuen bitartez escatzen dizuna, nic ere escatzen dizut. Arren, Jauna, aren eta nere erre-guac entzun itzazu. Iguzu emen lurrean zure grazia eta Zeruan betico gloria Jesucristo gure Jaunaren irabaziacgatic. Ala izan dedilla.

---

**EPISTOLAN.**



**Gogora ecartzazu Apostoluac  
penitenzia predicatu zutela.**

OTOITZA.

Gure Jesus Eracus-  
le bacarraren aurrean  
guziac issil bitez. Atoz  
Jauna, ta itzeguidazu:  
indazu nere animan  
zure Igarle santuen  
zintzotasun ta maite-  
tasuna, gure aguin-  
duac bete ditezen. Ala  
izan dedilla.



## EVANGELIOAN.



**Gogora ecartzazu Jesucristoc  
munduan dotriña zabaldu zuela.**

OTOITZA.

Lurreco bide poz-  
gabe onetan nabillen  
artean Jauna, gauza  
bi chit bear ditut: ar-  
guia ta janaria. Ez,  
arren, oriec neri uca-  
tu. Zure ebangelioco  
dotriña nere ibilleren  
argui izan bedi eta  
zure jaincozco gorpu-  
tza nere animaren ja-  
naria emendic Zeru-  
raño daucaten bidean  
erori ez nadin. Amen.

**CREDOAN.**



**Gogora ecartzazu ebangelioac  
legue santua ecarri digula, ta aoac  
aitortzen duala biotzac  
sinisten duana.**

OTOITZA.

(Ezazu Credoan, baña  
debozio guziaz, Apos-  
toluac eman ziguten  
Zeruco dotriña bezela.)  
Guero ezazu: Jauna  
zuc Eliz Ama Santua-  
ri eracutsi diozcazun  
fedeco egui guztiac  
sinisten ditut. Indazu  
grazia nere bizitzaco  
eguintz guztiac fede  
bizi batequin eguiteco,  
eta guero orien sarian  
zurequin bizi nadin.

## OFERTORIAN.



**Gogora ecartzazu Jesucristoren  
dotriñac ematen digula Fedea ta  
au aitortzeco laguntasuna.**



OTOITZA.

Jauna: Zure semea-  
ren sacrificio au Apai-  
zarequin batean es-  
queintzen dizut zure  
gloriric aundieneraco:  
neri eta mundu guz-  
tiari zuc eguindaco  
mesedeen esquerrac  
emateco: neretzat eta  
guzientzat grazi gu-  
ziac zugandic iristeco:  
zure Seme gure Jau-  
nagatic. Amen.

---

**Prefacio edo Santusean.**



**Gogora ecartzazu Jesucristoc as-  
toaren gañean Jerusalemen sartu  
zanean Juduac cantatzen ziotela:  
Santua, Santua, etc.**

OTOITZA.

Jauna, goratzen zai-  
tut Zeruco aingueru  
guziaquin. Gugana  
etorri nai dezu. Eman  
nai dizquitzut bada  
biotzetic ongui etorri  
ta bedeincazio guztia.  
Santua, Santua, San-  
tua ta gloriáz betea  
zaude guretzat, Jauna,  
zurea da gloria. Ala  
izan dedilla.



**CANON ETA MEMENTOAN**



**Gogora ecartzazu Jesucristoren  
Pasio santuaren asiera.**

OTOITZA.

Zure Seme Jesucris-  
togatic escatzen dizut  
Jauna, Eliza Santua-  
gatic, Aita Santu, gure  
Obispo, Erregue ta bes-  
te fededun guziagatic:  
nere guraso, senide,  
aide ta adisquide N.  
onelacoagatic, ongui-  
lle, eta gaizguille ta  
peccatari guziacgatic,  
zure grazira biurturic,  
zu maitatzen guzioc  
beti bizi gaitezen.

**OSTIA ALCHATZEAN.**



**Gogora ecartzazu Jesucristo  
gurutzean alchatu zutela.**

Adorätzen zaitut Je-  
sus nere Jaincotzat, ta  
Osti Santu orretan ado-  
ratzen det zure gor-  
putz sagradua, gure-  
tzaco aldarean mundu  
guzia erredimitzeco  
esqueñi zana. Sinisten  
det zu or zaudela.



**CALIZA ALCHATZEAN.**



**Gogora ecartzazu Jesucristoc  
bere zaurietatic odola  
ishuri zuala.**



OTOITZA.

Adoratzen det, Jau-  
na, zure odol guga-  
tic gurutzean ishuria,  
gure animac garbi-  
tzeco zuc emana: odol  
orretan uste det, nere  
gaiztaquerien barca-  
pena izango dedala.

Amen.



**CALIZA ALCHATU ONDOREAN.**



**Gogora ecartzazu oraindie Jesu-  
cristoren pasio ta bere eriotza.**

OTOITZA.

Zuc nai dezun beze-  
la, Jauna, apaizare-  
quin sacrificio au es-  
queintzen dizut zure  
Semearen Pasio ta  
eriotza, piztuer ta  
igoera gloriosoaren a-  
gurtzan. Osti garbia,  
osti santua, osti cutsu  
char gabea. Jauna, ez  
beguira guri, ezpada  
zure Seme maite oni,  
zure bendizioaz one-  
quin bat eguin gaitean.

**OSTIA CALIZAREQUIN**  
alchatzean.



**Gogera ecartzazu Jose ta Nicodemus ec Jesusen gorputza gurutzetic erachi zuela.**

OTOITZA.

Nere Jesus ona: zuc  
nere pecatuen zorra  
ordaintzeagatic guru-  
tze batean bizitza eman  
zenduan: indazu bada  
niri ere nere gaizta-  
queric eguiazco pe-  
nitenziz barcatzeco  
grazia, orientzat ill,  
eta zurequin zeruan  
bizi nadin. Amen.



**PATER NOSTERREAN.**



**Gogora ecarri itzazu Jesucristoc  
gurutzean esan zituen zazpi itzac.**

OTOITZA.

Ezazu Pater noster-  
rra, onen zazpi escariac  
gueldiric pensatuaz.  
Eguneroco oguia es-  
catzean aditzen da,  
gure bearrac ezagutze-  
co arguia, Sacramen-  
tuen laguntzac animac  
grazizco estaduan ira-  
uteco, ta gorputzaren-  
tzat janaria. Amen.



**PATER NOSTERRA ESAN  
ta ondorean.**



**Gogora ecartzazu Jesucristo  
Linbora jechi ta an zeuden animac  
atera zituela.**



OTOITZA.

¡Nere Jesus maitea!  
Zure anima Jaincota-  
sunarequin elcarturic  
jechi zan Linbora jus-  
tuen animac neque  
artatic artera ta gloriaz  
betetzera: indazu niri  
ere grazia nere anima  
pecatuen mendetic a-  
tera ta inpernuco ne-  
queetatic ascatzeco  
lenbaitlen ta Santu gu-  
ziaquin zeruan goratu  
zaitzadan. Amen.

## OSTIA ZATITZEAN.



Gogora ecartzazu Emaus-co icas-  
leac Jesucristo ezagutu zutela  
oguia zatitu zienean.

OTOITZA.

Nere Jesus animen  
luzendaria, zure icas-  
leac bezela, eramam  
nazazu bide zuzenetic,  
nere biotza ta nere  
adimena bete ta iraze-  
qui itzazu zure arguiz  
emen zure naya egui-  
ñaz, zeruco gloria iri-  
chi dezadan. Ala izan  
dedilla.



**PAX DOMINI.**



D. BISHOP

**Gogora ecartzazu Jesucristo bere  
icasleai aguertu zitzayela ta  
paquea eman ziela.**

OTOITZA.

¡Jesus gloriaz betea!  
Zure pizte gloriosoaren  
bidez idiqui zenduan  
betico bizitzaraco atea,  
eta ori aditzera eman  
ziñien zure Apostoloai  
esanaz: Paquea izan  
dedilla zuequin: esca-  
tzen dizut, Jauna eman  
deguiozula nere ani-  
mari pecatutic grazia-  
ra piztu, ta gueyago  
Zu ez ofenditzeco, bear-  
duan laguntza. Amen.

**AGNUS DEI.**



**Gogora ecartzazu Jesucristoc  
bere icasleai pecatnac barcatzec  
escubidea eman ziela.**

Jaincoaren bildots  
garbia, munduco pe-  
catuac quentzen ditu-  
zun Jesus ona, erru-  
qui zaitte gutzaz.

Jaincoaren bildots  
garbia, munduco pe-  
catuac quentzen ditu-  
zun Jesus ona, erru-  
qui zaitte gutzaz.

Jaincoaren bildots  
garbia, munduco pe-  
catuac quentzen ditu-  
zun Jesus ona, zure  
paquea iguzu. Amen.





OTOITZA.

Jauna, Apostoloai eman ziniñien bezela, Eliz Santuai ta guri paquea iguzu: gure gaitz guzietatic gorde gaitzazu. Zure naya beti eguiteco ta zugandic iñoiz ere ez urrutiratzeco grazia iguzu. Jauna, nic irabazi ez det zu nere animan sartzea, bañan itz bat esazu, ta nere anima salbatuco da. (Iru bider au esan bear da).

**COMENIO ONDOREAN.**



DEBERNY

**Gogora ecartzazu Jesucristo  
bere birtutez zerura igo zala.**

OTOITZA.

Jauna, baldin zu beregan artzen zaituana, zuc zure seme edo alaba eguiteraño jasolzen badezu, arren niri ere au equin zadazu. Nere izate onec gaitzeraco dauzcan grina macurrac atzera itzazu. Zure graziaz berriro jantzi nazazu, comunioan beti fede bizi ta irazequi batequin artu zaitzadan. Amen.

## BENDIZIOAN.




**Gogora ecartzazu Jesucristoc  
aguindu zuan bezela Espiritu San-  
tua bialdu zuala.**

OTOITZA.

Nere Jesus maitea,  
zuc aguindu bezela  
Espiritu Santua sugar  
bizi ta mingañen an-  
tzean Apostoloetara  
etorri zan; eguizu ba-  
da Espiritu consolaga-  
rri orrec nere biotz ta  
anima bere argui ede-  
rraz bete ta naitasu-  
nezco surtan irazequi  
ditzala. Amen.



## AZQUENECO EVANGELIOAN.



Gogora ecarri itzazu Jesucristoren  
Jaincotasuneco ta guizatasuneco  
misterioac.

OTOITZA.

Nere Jaincoa, nic  
dedan ta naizen guzia  
zurea izan, ta Zuc  
eman didazun ezquero  
guztia nic zuri biur-  
tzen dizut zure gogora  
zuzendu ditzazun. Zure  
naitasuna indazu, ta  
orrela aberats izango  
naiz, ta besteric nai  
ez det zuc nai dezuna  
baizic. Amen.

---

**MEZA ONDOREAN.**



**Gogora ecartzazu gaitzetic as-  
catu guinduelaco Jaincoari esque-  
rrac eman bear dizquiogula.**



## Meza Santuaren

**Ondorengo escari edo otoitza.**

---

Aita Santu XIII-garren Leon-en  
aguinduz 300 barcapen edo indul-  
genzi dauzcate.

*Errezatzen dira iru Agur Maria ta  
Salbe bat.*

**ESCARI EDO OTOITZA.**

---

Jaungoico guziz al-  
tzu eta escubide gu-  
ziac dauzcazuna, gure  
laguntzalle ta indarra,  
erregutzen dizun erri  
oni beguira zayozu  
arpegui onez, eta Ama  
Birjiña chit garbi Je-  
susen Ama, bere senar

doatsu san Jose, Pedro ta Paulo apostolo doatsuen eta Santu guzien bitartecotasunez, entzun itzatzu erruqui andiz zure oñetan pecatari guzien biurpeneraco ta gure Eliz Ama Santua- ren zorioneraco ipin- tzen ditugun gure es- cariac. Cristo gure Jaunaren bidez. Ala izan dedilla.

San Miguel goiain-

guerua, gorde gaitza-  
zu ta izan zaite gure  
laguntzalle, etsayaren  
eraso aldien contra,  
Jaincoac menderatu  
dezan; au da gure es-  
caera laburra; eta zuc  
zerutar guerrarien bu-  
rria, inpernuetara sar-  
itzazu gure animen  
galmenaren billa beti  
dabiltzan Satanas eta  
bere lagun gaiztoac.

Ala izan dedilla.

---

## BEZPERAC.

---

Gure Eliz Ama Santuac aguintzen digun lenengo gauza da jai eguna santutzea. ¡Eta santificatzen ote dituzte araco lasterca eta itsumustuan meza bat icusi, eta gañeraco jai guzia jostaquetan, jolasean eta baita ere gaizqueri ta pecatuetan igarotzen dutenac, sermoi eta beren pa-

arrocoaren gañeraco  
eracusaldietara joaten  
ezdiran eta bezpereta-  
ra joan bearrean ta-  
berna zuloetan, jo-  
cuan oi dabilzanac?  
Zerorregan erabaqui  
zazu, cristaua, begui-  
ra ezazu, itsumen ga-  
be, eta icusico dezu  
zure conzienziac zer  
esaten dizun. Baña  
bear bada, esango di-  
dazu: ni sermoi eta  
parrocoaren eracusal-

dietara joatea, on litzaque: baña ¡bezperetara zertara, baldin cantatzen ezpadaquit eta cantatzen dutenac zer esan nai duan aditzen ezpadet? ¡Zer egingo det an?... Au da cristau epel, alper, naguiac eman oi duten aitzagui charra. Bada zer ¡besperac otitzen zati edo puscabat dirala, eta beretan Jaincoa goratzen dala

ez aldaquizu? Zu espi-  
rituz edo naiez gora-  
tze oequin bat eguitea  
¿norc galerazten dizu?  
Ausse da bezperac bi-  
tarteetan zue eguitea E-  
lizac naiduana. Erli-  
jiozco eguiteco au zuri  
erraztutzeco eta aitzar-  
qui guziac quentzeco,  
ipintzen dizquizut Sal-  
moric adinbat jardun  
bide edo ejerzizio; be-  
retaco bacoitzean guel-  
ditu zaite pensatzen

apaizac cantatzen du-  
ten salmoac diraune-  
raño.





**LENBIZICO SALMORACO**

**JARDUERA**

**Anima Jaincoari deituaz umillatzen da**

---

**Atoz, atoz nere Jaungoico laztana, atoz eta lagun zadazu laster.**

**Zu zera nere Aita, ni esquer gabea banaiz ere: atoz, Jauna, etzaitzala nere esquer gabeheriac atzeratu, damutua nago ta.**

**Nic nere ezerezta-sunaren erditic deadar eguiten dizut, Jauna,**

erruqui zaiteala nere  
anima gaisoaz.

¿Zu gabe zer eguin-  
go det, nere biotzeco  
Jaincoa? Arbola quen-  
duric surtaraco da-  
goan adarra bezela  
nai ta nai ez ilco naiz.

Pecatari beartsu ta  
errucarri bat naiz; in-  
dazu zure grazia be-  
ra gabe gauz onic ez  
dezaquet-eta.

Bacarric pecatua da  
ni bildurtzen nauana,

Jaincoac galerazten  
didalaco ta Jaincoa  
galdu ezquero, guzia  
galtzen dedalaco.

Mundu onetan gu-  
zia bucatzen eta aitu-  
tzen da, baña Jaincoa  
beticotasun guzian bi-  
zico da, eta berac ne-  
re zorion edo gaistoa  
eguindo du, nic bera  
maitatzen edo ofendi-  
tzen dedan eran.

Nere Jaincoa, aitor  
ditut egui oec; eta



macurtzen naiz zure  
Aunditasun adoraga-  
rriaren aurren.

Zu zera nere Jaun-  
goicoa, ni zure serbi-  
tzari ezereza, eta la-  
guntza escatzen dizut  
nere biotz guztiz.

Castigua baizic me-  
rezi ezdet, Jauna, ba-  
ña zure ontasunagatic  
guzia uste det, zure  
odolaz erredimitua na-  
goalaco.

Bacarric gauza bat

asco zait, eta bacarric  
gauza baten zale naiz,  
eta da, zu, nere Jaun-  
goicoa, lurrean eta  
zeruan neretzea.

Gloria Aitari, glo-  
ria Semeari, gloria  
Espiritu Santuari, be-  
ticotasun guzien. A-  
men.

**BIGARREN SALMORACO**

JARDUERA

Jesucristoren irabazpideac zerua  
irabazteco uste andi bat  
emango digute.

---

¡Jainco eta betico

Aita! Nere pecatuac bildurtzeco gai eta bideac ematen badizquidate, zure seme Jesucristoren ontasunac uste izateco azcoz bide andigoac ematen dizquidate.

Bide oec ascoz indartsuagoac dira ni salbatzeco, nere pecatuac ni galtzeco diran baño.

Eguia da nic peccatu eguin nuanean, be-

tico nere galtzea billa-  
tu nuala, baña egúia  
da ere, nere erredimi-  
tzalleac nere galeraco  
epaya urratu zuala,  
eta bere odolaren tru-  
que erosi ninduala.

Nere gaiztaqueri-  
ac nere contra castigü  
esque daude; baña Je-  
susen odol onguilleac  
nere alde deitzen du,  
eta Jaincoaren aserrea  
gozatzen du.

Odol guziz ongarri

au indartsuagoa da  
Jaincoaren erruquipe-  
na iristeco, Cain con-  
denatzeco Abel-ena  
izan zan baño.

¿Nola nic barcape-  
naz etsico det, Jesus  
nere amorez gurutzean  
josiric eta illic icusita?

Guziz uste oso ta  
betea daucat, ni salba-  
tzeagatic ainbeste era-  
man zuanac emango  
dizquidala salbatzeco  
bear ditudan laguntzac



Goazen bada, anima nerea, graziaren jarlecura, barcapena irichico degun uste osoarequin.

Baña goazen laster, ez dezagun escubide au galdu, bear bada gueroago betaric izango eztegulaco.

¡Nere Jesus! Artu itzatzu nere borondatea, nere biotza ta nere naitasuna; guziz maite zaitut eta beti-

cotasun guzian mai-  
tatu nai zaitut.

Gloria Aitari, gloria  
Semeari, etc.

**IRUGARREN SALMORACO**

JARDUERA

Neque lanetan eramankizuna.

---

Ezin guztiro zorio-  
necoac izango guera  
zerura joan arte: lu-  
rra, gurutzezco eta  
dolorezco toqui bat da.

Lurrean gure bizi-  
tza laburra da, eta  
samintasunez eta pe-

naz betea dago.

Oec pazienziaz daramazquiena salbatzen da, gogo gaiztoz daramazquiena berriz betico galtzen da.

Lanaren galbaian bereten da alea lastoagandic Jaunaren Elizan.

Naigabeac onez daramazquiena da zeruraco berezitutaco alea; gogaitzen eta asarretzen dana eta Jaincoa

usten duana, inpernu-  
co sugarretaraco be-  
reizten dan lastoa.

Erredimitzallearen  
zauri guziac nequeac  
bere maitetasunez e-  
ramaten eracusten di-  
guten beste ainbeste  
mingain dira.

Jesucristoc gugatic  
eriotz gogorra artu  
zuan. Jesucristogatic  
sufritzea da santuen  
jaquintasun guzia.

Anima baten ira-

bazbide guzia dago  
Cristo maitatzean eta  
bere maitetasunez su-  
fritzean.

¡Oh nere jaincozco  
erredimitzallea! Eza-  
güerazi zadazu zein  
maite izan nazun eta  
zenbat nigatic sufritu  
izan dezun, nic zu  
maite zaitzadan eta  
zugatic sufri dezadan.

Lagun zadazu, Jau-  
na zure graziaz espi-  
ritua prest bañan ara-

guia argal eta gassoric daude-ta.

Nola nai ere mundu ontan padezitu bear det; beraz irabaziaz padezitu nai det gurutze ta naigabeac eramanaz.

Gloria Aitari, gloria Semeari, etc.

**LAUGARREN SALMORACO**

JARDUERA

Urcoaganaco caridadea.

---

Jaincoa maitatzen duan animac maita-

tzen ditu guizon gu-  
ziac, Jaincoac eguiñac  
diralaco.

Caridadeac bide gu-  
ziac billatzen ditu, al-  
ditequean eran gure  
antzecoai laguntzeco.

Caridadea da Jain-  
coac ainbeste escatzen  
digun birtute guzien  
birtutea; beragatic izan  
bear degu garai ta to-  
qui guzietan.

Iduqui bear degu  
caridadea bearrean

daudenai, guzienean munduco arro ta andinaiac azpiratzen dituztelaco.

Iduqui bear degu caridadea gasso daudenai, naigabez beteac eta ascotan inoren laguntzic gabe arkitzen diralaco.

Iduqui bear degu caridadea adisquide ta onguilleaz, ezagüera onac eguiteco au escatzen dalaco.



Iduqui bear degu caridadea gure etsai ai gure antzecoac diralaco, eta Jaincoac ala aguintzen digulaco.

Gorrotu bear diogu pecatuari, fedearen uts eguiteai, erligio gabequeriari; ez ordea peccatariai, erejeai, erligio gabeai, Jaincoac eguiñac diralaco.

Eramanquizuna eta gozotasunaz escuratzen eta garaitzen da

arroqueria, biguntasu-  
nez gorrotoa.

Caridadezco espiri-  
tu au da Jaincoaren  
espiritua, Jesucristoc  
berac itzez eta eguitez  
eracusten diguna.

Santuac espiritu au  
iduqui zuten, eta guc  
ere au iduqui bear  
degu, baldin ayec ira-  
bazi zutena nai bade-  
gu.

Gloria Aitari, gloria  
Semeari, etc.

**BOSGARREN SALMORACO**

JARDUERA

**Jaincoaganaco maitetasunaz.**

---

Maitatu bear degu Jaincoa gauza guziac baño gueigo, eta nai izan bear degu bera maitatzea gure maitagarri bacarra bezela.

Jaincoa da maite-tasunaren iturburu eta asiera, eta ala ez gue-  
ra maitatu bear, ezpa-  
da Jaincoagatic eta  
berac nai duan eran.

Gure etsaya sayatzen da guri urcoaganaco naitasun era gabea emanerazitzera; eta gogo oni toqui eguiten diona galtzeco zori andienetan jartzen da.

¿Zer balio dit guztiai maiatzeac eta berac ni maite izateac, baldin eguilleac gorroto badit?

Esango det bada aspertu gabe, Jaincoa

maitatzea da nere as-  
mo gozo guzia, Jain-  
coa serbitzea nere egui-  
teco guzia.

Nere salbatzalle go-  
zoa, gogoz artu ta guei-  
tu zazu nere gogo au,  
eta quendu zaidazu  
zuganaco ezdan naita-  
sun guzia.

Ni poztutzen naiz  
zure ontasun ondoga-  
bean pensatzen; onta-  
sun onec peccatari da-  
mutua inoiz ere berá-

gandic botatzen eztu.

Zuc, Jauna, chit merezi dezu maitatua izatea, eta nic zure escutic mesederic asco artu ta artzen ditut, eta maitatu bear zaitut.

Ona emen, nere Jaincoa, ni zu maitatzera oso emana; eta milla biotz banitu, guziac zuretzat izango liraque.

Zuc nere maitetasu-

na nai dezu, nic maitatu nai zaitut, eta orain eta beticotasun guzian maitatu nai zaitut.



Gloria Aitari, gloria Semeari, etc.

## IMNORACO

JARDUERA

Zuri deiez nagoquizu. ¡Jaungoico guziz indartsua! Zatoz, neri laguntzera, ez luzatu ni babestea.

Nere etzayac gau ta  
egun erasotzen dida-  
te; baña zuc, Jauna,  
lagunduco didazu, eta  
ill arteraño lazqui era-  
soco det. ¡Bai gozoa  
dala zure adisquideta-  
sunean bizitzea! ¡Bai  
atseguiña zure besoe-  
tan iltzea! ¡Jauna! zu  
zera nere Aita, nere  
Ama eta nere Anaia.  
¡Baña nolaco Aita, no-  
laco Ama, nolaco A-  
naia! Aitaric gozoen



eta indartsuena, amari-  
ric biguñen eta mai-  
tetsuena, anayaricleia-  
len eta onena! Ni zure  
seme ta serbitzari zin-  
tzo izango naiz beti.  
¡Jauna, nere Jabe go-  
zoa! Zurequin bizitzea  
da nic nai dedana;  
zure adisquidetasu-  
nean iltzea, nai deda-  
na: zure glorian ar-  
quitzea, nic nai nu-  
queana.

Nic, nere Jaincoa,

ezaguntzen det nere ezereza; nic, Jauna, aitor det nere ustasuna; baña zuc zerrorrec esan dezu: *U-tzi zayezute chiquichoai nigana etortzen*; eta ala ni zure adisquidetasunaren billa nator. Irazequi zazu, Jauna, nere biotz au; indartu zazu nere naitasun zu beti gora zaitzadan eta zugan beti pensa dezadan.

# MAGNIFICAT-ERACO

## JARDUERA

Animac Maria chit Santua goratuaz  
bere babesean artzea escatzen dio.

---

¡Maria, Jaincoaren  
ama! ¡Zu biturtean eta  
aguintean aingueru  
guziac baño andiagoa;  
zu zera, Jaincoaz urre-  
na, gure uste osoa ere.

¡Mundu guzico erre-  
guiña! zu zera naiga-  
betuen pozgarria, eri-  
en osasuna, pecata-  
rien gordelecua eta

justuen atseguña.

Zu zera birtutezco lorategui ederra; iri-chi eguizquidatzu umiltasun, garbitasun eta caridadearen lore ederra.

¡Jesusen Ama maitea! Itzeguizu, badazure Semeac aditzen zaitu eta esca eguizquiotzu neretzat grazi ugariac.

Zure oñetan auspez-turic erregutzen dizut,

irichi deguidazula nere  
re pecatuen barcape-  
na, ta zure Seme ta  
nere erredimitzallea-  
requin bat eguitearen  
zoriona.

¡Maria beti maita-  
garria! gogora zaite  
Jaincoaren semea zu-  
re errai garbietan gui-  
zon eguin zala ez pe-  
catariac condenatzeco,  
ezpada salbatzeco.

Nere Ama ta bitar-  
teco gozoa, artu naza-

zu zure serbitzari zintzoen artecotzat.

Eman eguizquidatzu zere ondasunac graziaz betea deitzen dizu aingueruac-eta.

Jaincoa bere serbitzari zintzoa goratzen poztutzen da, lurreco andinai arroac umillatzen eta beerratzen dituan bitartean.

Zori onecoa deitzen dizute erreinu ta erri guziac; eta zure izen

santua guizalditic guizaldira igaroaz joango da.

Gloria Aitari, gloria Semeari, etc.

OTOITZA.

¡Nere salbatzallea!

Nere pecatuen zorra pagatzeagatic locarriz lotua, iltzez josia ta gaizquille bat bezela gurutze batean illa izan zĩnana; nere culpatic negar eguiñaz

escatzen dizut, inda-  
zula zu serbitzeco eta  
iñoiz ere ez ofenditze-  
co bear dedan grazia:  
ni, Jauna, zure escue-  
tan jartzen naiz, artu  
nazazu, eta zure bio-  
tzean iduqui nazazu  
betico. Amen.







## GALBARIOCO ESTAZIOAC

**Naitasunezco ta dolorezco Jesucristo-  
ren pausoac.**

---

Debozio onetan Je-  
sucristorequin itz e-  
guiteco ziñatu, *nere*  
*Jesucristo Jauna* edo  
contriziozco actoa bio-

tzetic eguin, ta batec  
guzien izenean es-  
queintza esango du  
onela:

### ESQUEINTZA

Betico Aita, Jaun  
guziz indartsua, begui-  
ra, ez guri, ezpada zu-  
re Seme maite Cristo-  
ren arpegui ederrari,  
ta Galbarioco bide san-  
tu onetaco pauso guz-  
tiac, biotzeco maiteta-  
sun, ta asmo batean,

zure gloriric andie-  
neraco izan bitez, ta  
zeruraco otoitz onetan  
diran edo barcapen  
guztiac. Aita santuac  
nai duen bezela egui-  
ñaz irabazi nai ditugu,  
eta Ama Birjiñaren es-  
cuetatic, zuc nayen  
dituzun purgatorioco  
animen laguntzaraco,  
ta gure salbazioraco  
izan bitez. Amen.





**LENENGO ESTAZIOA**

---

Erabaqui dute,  
Cristau maitea,  
Gurutze batean  
Jesus iltzea.

**Eriotzaco sententzia Jesucristori  
eman zioten toquia.**

Gogora ecartzazu,  
cristaua, Jesus gure  
Redentorea ostiral san-  
tu goizean bost milla

ta gueyago joaldi, arantzazco coroa ta beste oñazez gañera, gurutzean eta lapur biren erdian iltzera Pilatosec condenatu zuala.

OTOITZA.

¡Nere Jesus Redentore maitea! Joaldi, arantza, min ta lotzaz beteric, ain ishil ta ain umil zure eriotzaco epaya gure culpagatic artu zenduana: Zure

biotzeco maitetasun ta  
umiltasun onegatic,  
arren, Jauna, indazu  
eguzco penitenziare-  
quin nere pecatuen  
cateetatic ascatzeco la-  
guntza, ta azquenic  
nere aldeco epaya nic  
aditzeco. Amen.

*Jauna, damu det zu  
ofenditua izan ezazu  
nitezaz misericordia.*

Paternosterra, Agur Maria ta  
Gloria, Aita santuaren gogora, ta  
au pauso guzietan.

---



## BIGARREN ESTAZIOA

---

Orain artutzen ditu  
gurutze batean  
gure pecatu danac  
beraren gañean.

Jesucristori gurutzea eman zioten  
toquia.

Gogora ecartzazu,  
cristaua, Jaunari par  
eguiteagatic jantzirica-

co soñeco zarrá tiráca  
coroarequin quendu  
ziotela, berè soñecoac  
jantzi ta coroa berriro  
oñaze gogorretan sartu  
ziotela, ta eriotzaco bo-  
rreroac gure pecatuen  
astuntasun guztia edo  
gurutzea bere gañean  
eman ziotela.

OTOITZA.

¡Nere Jesus bildots  
guztiz issilla! Isaac o-  
nac baño obeto zure  
sacrifizioraco egurra,



zure Aitaren obedien-  
zi ta gure maitetasu-  
nagatic, zure sorbal-  
dan eramam zenduena.  
Zure biotzeco ontasun  
onegatic, arren, inda-  
zu grazia nere era ga-  
beco gogo gaizto gu-  
ziac zure gogora bizi-  
ro eutsi nere culpai  
ondoan dagoquien pe-  
nitenzian, gurutzea  
beti zure ondoren go-  
gotic eramam, ta lu-  
rreco nequien bidez

zeruco coroa irabazi  
dezadan. Amen.

*Jauna damu det, etc.*





## IRUGARREN ESTAZIOA

Emen eroritzen da  
Auzpez aurrera  
Gurutze astunarequin  
Jesus lurrera.

[Gurutzearequin Jesus lenengo erori  
zan toquia.

Gogora ecartzazu,  
cristaua, gure Jesus  
maitea chit necatua ta  
oñen gañeau ezin ego-

nic gurutzearequin lurrera erori zala: bere inguruan zijoazen guizon gaizto ta biotzgabe ayec Jaunari lagundu bearrean, osticoca, joca ta arrastaca erabili ta nequez jeiquierazo zuten.

OTOITZA.

¡Nere Jesus Jaun guztiz altsua, ta gure naitasunez onela argaldu ta lurra jo arteraño gurutzepean

macurtua! Zure naita-  
sun ta eramankuizun  
azquen gabe onegatic,  
arren, zure escua in-  
dazu, nere culpa astu-  
nen azpitic, eguizco  
penitenziaz zugana jei-  
quitzeo, zure guru-  
tzearen ondoren lurre-  
co neque ta oñazietan  
pozic ibilli nadin eta  
zure arpegui ederra  
zeruco glorian icusi  
dezadan. Amen.

*Jauna damu det, etc.*



## LAUGARREN ESTAZIOA

---

¿Nore esan lezaque Amac  
zeucan oñazea,  
onela icusita  
beraren Semea?

Jesucristoc bere Ama guztiz Santua  
arquitu zuan toquia.

Gogora ecartzazu,  
cristaua, galbarioco  
bide onetan Jesus onac

bere Ama maitea pena ta negarrezco ichaso bat equiñic arquitu zuala. Beguira ondo, begui maitetsuaz biac alcar icusi, ta biotz batac besteari naitetasunez itz equin ziola, ta biotz laztan biac oñazez ito ta estutuco zirala.

OTOITZA.

¡Oñazez betetaco  
Amaric maiteena! ¡Bai  
ezpata zorrotzac zure

anima josi zütela, zure biotzeco Semea era char artan icusi zenduanean, burua arantzaz josiric, arpegui eder ura chistuz, odollez ta autsez itsusiric, eta gure pecatuen gurutzea gañean zuela, ta joca zeramatela! ¡Amaric atsecabetuena! Arren, indazu zure Semearen ta zure atsecabe oyen erruqui eguizco bat, gure pe-



catuen barcapen ta  
zure betico naitasuna  
arqui dezadan. Amen.

*Jauna damu det, etc.*





## BOSGARREN ESTAZIOA

---

¿Gurutzea eramaten  
lagun nai al dezu?  
Artuco zaituzte emen  
baldin nai badezu.

**Jesus maiteari gurutzea eramaten  
laguntzeco Zirineoco Simon  
artu zute toquia.**

**Gogora ecartzazu,  
cristaua, oñazezco bide  
onetan gure Jesus ain**

argal ta nequez zijoa-  
laric judu odolguiroac  
gurutzearen astunta-  
sunez icara ta erortze-  
co zorian icusita, Si-  
mon zezitzan Zirineo-  
co guizon bat Jaunari  
laguntzeco artu zute-  
la, bañan ez erruquiz,  
baizic gurutzeco oña-  
zetan iltzen icusi nai  
zutelaco.

OTOITZA.

¡Salbatzalle maitea!  
gure pecatuen astun-

tasuna zure gañean  
artu ta gure animen  
billa ain nequez ibi-  
ller oyetan ibilli ziña-  
na, ta Simon-en an-  
tzera, Galbarioco bi-  
dean zuri jarraitzen ta  
laguntzen eracutsi zi-  
ñiguna! Iguzu, arren,  
Jauna, zure eramam-  
quizuna, gure peca-  
tuen damu ta zure  
atseguinen biotzeco  
erruqui aundi bat, gu-  
rutzea eramaten orain

zuri lagundu ta orren  
ondorengoia eduqui de-  
zagun zu goratzen ze-  
ruco glorian. Amen.

*Jauna damu det, etc.*





**SEIGARREN ESTAZIOA**

---

Arpeguico izerdi  
eta odoletan  
zapi bat busti du  
iru alozetan.

Veronica esaten dan andre biotz  
biguñac Jesus onari bere arpeguia  
garbitu zion toquia.

Gogora ecartzazu,  
cristaua, Jaunaren ar-

peguia chistuz, odolez  
eta autsez beteric Ve-  
ronica Santuac icusi,  
ta iru alozeco zapi gar-  
bi bat artu ta guzien  
artetic sartu ta jaincoz-  
co arpeguia garbitu  
ziola, ta iru tolesture-  
tan Jaunac bere ar-  
peguiaren antza orren  
ordañez utzi ziola.

OTOITZA.

¡Nere Jesus, eguiz-  
co edertasunaren ispi-  
llua! Zenbat nere pe-

catuagatic itsusiago,  
ainbat guretzat, Vero-  
nica santuarentzat  
maiteago! Baldin gure  
pecatuac orrela itsusi-  
tu bazinduzten, orien-  
damuac, zure oñazezco  
izerdi ta loyac quen-  
tzeco zapi garbiac izan  
bear dute. Iguzu, Jau-  
na, grazia, biotzeco  
negarren bidez gure  
animac garbitu ditza-  
gun zure antz bizi bat  
orietan jositzeco, eta



zeruan zure arpegui  
ederra beti icusteco.

Amen.

*Jauna damu det, etc.*





## ZAZPIGARREN ESTAZIOA

---

Emenchen erortzen da  
bigarren go aldiz,  
ta zu bide gaiztotic  
oraindican zabiltz!

Jesucristo bigarren aldian erori zan  
toquia.

Gogora ecartzazu,  
cristaua, erritic can-  
poraco ate batean, gu-  
re Jauna gurutzearen

astunac necatu ta gu-  
zia argalduta bigarren  
aldian erori ta lurra  
jo zuala. Guizagaizto  
ayec joca jaso zuten,  
eta Jerusalem galdua  
Jesus onac utzi zuan,  
aurrera jarraituaz.

OTOITZA.

¡Nere Jesus erru-  
quizco Aita! Mundua-  
ren jabe bacarra. Zu  
sorayo ta ero bat ba-  
ziña bezela, Jerusa-  
lendic bota zinduz-

ten, ta orregatic ere  
erri zorion gabe ari  
erruquiz beguiratu zi-  
ñion. Arren, Jauna,  
zure ontasun guztiaz  
gure animai beguira  
zayezu, ta gurutzea  
eramaten guc pozic  
lagunduco dizugu; ta  
gure pecatuacgatic e-  
rritic bota bazaituzte,  
guc gure biotzetan ar-  
tuc zaitugu zurequin  
beti bizitzeco. Amen.

*Jauna damu det, etc.*



## ZORTZIGARREN ESTAZIOA

---

Eguin pecatuacgatic  
negar, bai, gogotic;  
nere atsecabe danac  
ala joaten zaizquit.

Jerusalengo andreai Jesus onac itz  
eguin zion toquia.

Gogora ecartzazu,  
cristaua, Jesus onac  
bere nequeen artean

lapur gaizto baten antzera zijoala, erruquizta negarrez aren ondoren zijoazen andre onai esan ziela: Jerusalemengo alabac, ez nigatic negar eguin, baidican zuen buruagatic, ta zuen umeacgatic oyen gañera gaitz aundiatic etorri bear dute-ta.

OTOITZA.

¡Nere Jesus, artzai ona bezela gure ani-

men billa ibilli ziñana,  
Galbarioco bide gogor  
artan, ta zure atseca-  
been artean ere andre  
biotz onai, ta ayetan  
guri, pecatuagatic bear  
bezela negar equiten  
eracutsi ziñiguna! A-  
rren, Jauna, argui bi-  
zi bat iguzu ardi onen  
antzera zure dei mai-  
tatia aditu ta zuri ar-  
tzai onari bezela zuzen  
beti jarraitzeco, eta  
gure biotzeco negarra-

quin orain zuri lagun-  
du ta guero gure sal-  
bazioco deya zure ao  
gozotic betico adi de-  
zagun. Amen.

*Jauna damu det, etc.*







## **BEDERATZIGARREN ESTAZIOA**

---

¡O pecatu gaiztoen  
alderdi macurra!  
irugarren aldian  
emen jo du lurra.

**Irugarren aldian Jesus erori zan  
toquia.**

**Gogora ecartzazu,  
cristaua, aldaparen  
igoeran indarric gabe**

Jesus maitea iruga-  
rren aldian erori ta  
bere arpegui ederrà  
autsez bete zuala. Jei-  
qui nai, ta ezin; ta  
etzai gogorrac ostico-  
ca, tiraca ta deadarrez  
esan zioten: Ea, laster  
jeiqui: gurutzean il  
bear dezu, an illic icu-  
si nai zaitugu.

OTOITZA.

¡Nere Jesus, Zeru-  
co Jabe maitea! ¡Zure  
gurutze ta lurreco ne-

queac. gogo onez era-  
matera erabiltzen gai-  
tuzu! ¡Ay Jauna! ne-  
regaiizqui eguiñac dira  
zu bultzaca ta joca lu-  
rrean irugarren aldian  
erabilli zaituztenac:  
arren, iguzu grazia  
orien damua equin ta  
gurutzearen atseca-  
beac gure gaiztaque-  
rien saria bezela artu  
ditzagun; zure oñazeac  
eta maitetasuna gogo-  
an eduqui ta orien sa-

rian Zeruco zoriona  
betico arqui dezagun.  
Amen.

*Jauna damu det, etc.*





## AMARGARREN ESTAZIOA

---

Ona non daucazuten  
Jesus billotsican  
burutican beraño  
zauriz beterican.

Jesucristori bere soñecoac quendu  
ziozcaten toquia.

Gogora ecartzazu,  
cristaua, borrero odol  
zale ayec erruquiric

gabe Jaincoaren Se-  
meari bere soñecoac  
lotz andian quendu ta  
era gaistoz arri batean  
jarrierazo ta beazunez  
nastutaco ardoa eman  
ziotela. ¡Parrez eta  
gaizqui esaca gure  
Jauna emen lotsatu  
zuten!

OTOITZA.

¡Nere Jesus, era-  
manquizun miraga-  
rrien ispillua! Zein  
naigabe aundiac zure

biotzac artuco zituan  
munduaren beguietan  
zure soñecoac quendu,  
zauriac berritu ta lo-  
tsa gorrian beazuna  
edateco eman zizute-  
nean. Arren, Jauna,  
iguzu indarra pecatu  
ta gaizquerien soñeco  
zarra quendu ta zure  
naitasunezco soñeco  
berria jantzizeco, ta  
emengo atseguin gue-  
zurrezco beazunez be-  
teac utzi ta eguiazco

zure atseguinac arqui-  
tzeco. Amen.

*Jauna damu det, etc.*







## AMAICAGARREN ESTAZIOA

---

Oñac eta escuac  
iltzez josirican  
emen zegoan Cristo  
penaz beterican.

**Jaungoicoaren Semea Gurutzean josi  
zuten toquia.**

**Gogora ecartzazu,  
cristaua, Jesus bildots**

aiñ ishil gure pecatua-  
gatic sacrificatu bear  
zana, gurutzearen ga-  
ñean ezarri ta tiraca  
zañac urratuaz iltze  
gogorrez josi zuten, ta  
oriec gueyago zapal-  
tzeco Jaunaren gañe-  
an jarri ta jotse ba-  
coitzean Ama chit San-  
tuaren biotz biguñña-  
ren gorputzarequin  
batean urratzen zuten.

OTOITZA.

¡Nere Jesus, peca-

tuac quentzen dituzun  
bildots errugabea! ¡Ay,  
tà zer amorezco caro-  
bi bizian zure biotza  
orduán egon zan aiñ  
ishill ta pozic zure  
escua ta oiñ sagraduac  
gurutzean jositzeco e-  
man zinduenen! Zure  
eramankuizun onega-  
tic iguzu, Jauna, gra-  
zia gure escu ta oñac  
pecatuen cateac urra-  
tu, zure bildur ta mai-  
tetasunezco iltzez josi,

ta zure biotzean beti  
bizi gaitezen. Amen.

*Jauna damu det, etc.*





## AMABIGARREN ESTAZIOA

---

Emenchen Jesus ill zan  
guizon danacgatic;  
òroitu zaite bada  
orain eta beti.

Jesus, gure bizitza, gurutzean jaso  
ta ill zan toquia.

Gogora ecartzazu,  
cristaua, gure Jesus,  
Jaungoico ta guizon  
eguiazcoa, gurutzean

josi ta jaso zutela, eta  
gurutzean jartzeco be-  
re zañac luzetu ta eten  
eta mendi santu ar-  
tan gure Salbadorea  
airean aguertu zala.  
Beguiria nola lapur  
biren erdian oñaze ar-  
tean ill zan.

OTOITZA.

¡Nere Jesus, Ama  
Birjiñaren frutu be-  
deincatua, ta gure pe-  
catuagatic madarica-  
tua bezela ta gure sal-

bazioco frutu gozo e-  
guin ta arbola santuan  
egon zĩñana! Gure  
barcapeneco eguna au-  
da; ta ori zure oñaze,  
ta zauriac, ori zure  
negar ta biotzeco dea-  
darrac Betico Aitari  
escatzen diote. Ala izan  
bedi Jauna, ta gure  
pecatuac eguizco peni-  
tenziaz garbitu ta zu-  
requin ill ta betico bi-  
zi gaitean. Amen.

*Jauna damu det, etc.*



## AMAIRUGARREN ESTAZIOA

---

Gurutze gañetican  
bere Amagana,  
emenchen jechitzen da  
Jesus chit laztana.

Gorputz santua jechi, ta Ama Birji-  
ñari eman zioten toquia.

Gogora ecartzazu,  
cristaua, gure Jauna-  
ren oñazeac eriotzare-



quin azquendu ta Ama  
maitearenac dirauten.  
Gorputz illa lanzaz  
idiqui ta Ama Birji-  
ñaren anima josi zu-  
ten, ta Jose ta Nico-  
demus Santuac guru-  
tzetic jechi ta Amari  
aurrean jarri zioten.  
¡Onen oñaze naigabe  
ta negarrac!

OTOITZA.

¡Nere Ama chit  
Santua oñaze ta nai-  
gabezco ichaso ondo

gabea! Norc esan de-  
zaque zure animan  
zer igaro zan zure bio-  
tzeco semea illic besoe-  
tan artu zenduenean.  
Aren buru, escu ta  
oñac, ta biotza idiquia  
icusita, zer miñ artu  
zinduen. Arren, bada,  
gure Amaric maitee-  
na, oyegatic iguzu e-  
guiazco erruqui andi  
bat, pecatuen eguizco  
damuz, betico orien-  
tzat ill ta zurequin

Zeruan bizi gaitezen.

Amen.

*Jauna damu det, etc.*





## AMALUGARREN ESTAZIOA

---

Obi berri bat nai du  
zure biotzean,  
Jesus illac, betico  
zu bizi zaitean.

Obi edo sepulcro berrian Jesusen  
gorputza sartu zuten toquia.

Gogora ecartzazu,  
cristaua, atsecabezco

Amāren besoetatic ne-  
quez Gorputz Santua  
Jose ta Nicodemusec  
artu ta izare edo main-  
dire berri eder batean  
eguiazco Cristo garbi-  
ro igurtzi eta arrizco  
obi berrian debozio  
andiaz sartu zutela.  
¡0 pauso onetaco A-  
ma Birjiñaren oñaze  
ta negar samiñac!

OTOITZA.

¡Martiri guztien E-  
rreguiña, samintas-

nezco pauso onetan,  
Jesus, zure maitetasu-  
nezco ta dolorezco lo-  
rapilla bat eguin ta  
zure biotzaren erdian  
beti gorde zenduena!  
Zure martirio berdin-  
gabe onegatic, arren,  
iguzu zure escua eta  
zorionic andiena, zure  
bacartasun atsegabez-  
co onetan zure peca-  
tuen penitenziarequin  
lurreco gauzac utzi ta  
zure Seme Jesus ta Zu

beti maitatzeco Zeruan  
Amen.

*Jauna damu det, etc.*





**JESUCRISTOREN**

**BOST LLAGA SAGRADUEN**

**ADORAZIOA**

Doloretaco Nere  
Ama, zure semeac ni-  
gatic artu zituan bost  
llagac zure aurrean  
adoratu nai ditut, ta  
oriec adoratzean zuc  
iduqui zenduan espi-  
ritu ta maitetasuna



beti iduqui nai nuque.

**Ezquerreco oñeco Ilagari.**

¡O nere Jesusen Ila-  
ga maitagarria! Biotz  
guztiz adoratzan zai-  
tut, ta orregatic esca-  
tzen dizut, Jauna, ne-  
re ibillera gaistoaz  
eguin dizquizudan  
gaiztaqueri guzien bar-  
capena.

*Paternosterra ta  
Gloria Patri.*

**Escuico oñeco Ilagari.**

¡O nere Jesusen Ila-  
ga maitagarria! Biotz  
guztiz adoratzén zai-  
tut, eta orregatic esca-  
tzen dizut Jauna, ne-  
re itz ta eguite gais-  
toaz eguin dizquizu-  
dan gaiztaqueri gu-  
zien barcapena.

*Paternosterra ta  
Gloria Patri.*

**Ezquerreco escuco Ilagari.**

¡O nere Jesusen Ila-  
ga maitagarria! Biotz

guztiz adoratzzen zai-  
tut, eta orregatic es-  
catzen dizut, Jauna,  
nere begiaz ta beste  
sentzunaz eguin diz-  
quizudan gaiztaqueri  
guzien barcapena.

*Paternosterra ta  
Gloria Patri.*

Escuico escuco llagari.

¡O nere Jesusen lla-  
ga maitagarria! Biotz  
guztiz adoratzzen zai-  
tut, eta orregatic es-  
catzen dizut, Jauna,

nere gogoramen, adimen ta nayaz eguin dizquizudan gaiztaqueri guzien barcape-na.

*Paternosterra ta  
Gloria Patri.*

Sayatz sagraduco ilagari.

¡O nere Jesusen lla-  
ga maitagarria! Biotz  
guztiz adoratzen zai-  
tut, eta orregatic esca-  
tzen dizut, Jauna, zu-  
re biotza lantza gogo-  
rraz eta zure Ama chit

Santua ezpata zorrotzez josi zuten bezela, ala nere anima zure maitetasunez betico josi dezazula, zuri gaitz bat eguin baña il nayago detalaco. Amen.

*Paternosterra ta  
Gloria Patri.*

## **BOST LLAGAI**

S. Francisco Jabier-ec eguneco eguiten zioten orazioa.

Nere biotzeco Jaun eta Jaungoico Jesucristo, bost llaga gu-

rutzean eta beste ezin  
contatu ala zure pa-  
sioan guganaco mai-  
tetasun ar-erazo ziz-  
quitzunagatic, esca-  
tzen dizut zure odol  
onguilleaz erredimitu  
guinduzunoc arren,  
zure ontasunac gorde  
eta zure gloriara era-  
man gaitzala. Amen.





# AMA BIRJIÑAREN

## ERROSARIO SANTUA

bear dan debozioaz errazatzeco modua

---

Ama Birjiñarequin  
itz eguiten asteco,  
gueldiro ta ondo zi-  
ñatu eta *Nere Jesu-  
cristo Jauna etc.*,  
biotzetic esan, eta gue-  
ro Elizac latinez diona

Escu Liburua. G.—18.

*Dómine labia mea  
etc. batec asico du  
onela:*

ÿ. Idiquico dituzu,  
Jauna nere ezpaiñac.

R). Eta nere aoac  
esango ditu zure ala-  
bantzac.

ÿ. Beguira zazu  
Jauna, nere alde.

R). Eta atoz laister  
neri laguntzera.

ÿ. Gloria Aitari,  
Semeari eta Espiritu  
Santuari.



R). Asieran bezela,  
betico guzietan, orain  
eta beti. Amen.

---

MISTERIO ATSEGUINTSUAC

ASTELEN OSTEGUNETARACO.

*Emen Apaizac edo batec  
esqueintza esango du: ta  
guero obeto errezatzeo, ta  
barcapena irabazteco batec  
beti contu eramian eta Pa-  
ternosterrac ta Agur Maria  
asi, ta besteac gueldiro beti  
eranzungo dute.*





## LENENGO MISTERIOA

Jaungoicoaren Semearen Araguitzea.

### ESQUEINTZA

¡O Birjiña Maria,  
Jaincoaren Ama mi-  
ragarri ta gure erre-  
guiña! Amar Agur  
Mari oyec eta Pater  
noster au izan bitez

zure biotzac artu zuen  
atseguinaren oroipe-  
nean, Gabriel Aingue-  
ru Santuac berri onac  
ecarri, ta Betico Aitac  
bere Alabatzat, Semeac  
amatzat eta Espiritu  
Santuac emaztetzat ar-  
tu zinduenean; Jaun-  
goicoa zure sabelean  
guizon eguindaco mis-  
terioric miragarrien  
onegatic, arren, escu-  
ratu zaguzu gure bio-  
tzetaco umiltasun zu-

rearen äntzeco bat; gu-  
re pecatuen damuaz  
penitenzia eguiteco ar-  
guia Principe Catoli-  
coen eta oyen erre-  
nuetaco paquea eta  
Jaungoicua maitatze-  
co osasuna ta grazia.  
**Amen.**

*Emen eta besteetan Pa-  
ter noster eta amar Agur  
Mari errezatzen dira.*

---



## **BIGARREN MISTERIOA.**

**Ama Birjiñac Isabel Santuari eguin  
zion icustaldia.**

### **ESQUEINTZA**

**¡O Birjiña Maria,  
Jaungoicoaren Ama ta  
birtute guzien Jabea!  
Amar Agur Mari oyec  
ta Pater noster au**

izan bitez zure biotzac  
artu zuen atseguña-  
ren oroipenean Jaun-  
goicoa zure sabelean  
artu ta caridade bizian  
zure lengusu Isabel  
Santuari icustera joan  
ziñanean, bera zeruco  
ondasunez betetzera,  
ta San Juan Amaren  
sabelean santutzera.  
Zuen Seme bien artean  
orduan igaro ziran  
misterio ezcutatuac  
ezaqutzeco, ta gure

animac penitenziaz  
santutzeco bear dan  
guzian, arren, escura-  
tu zaguzu: eta Princi-  
pe Catolicoen eta oyen  
Erreinuraco paquea,  
ta gure Jauna maita-  
tzeco osasuna ta gra-  
zia. Amen.





## IRUGARREN MISTERIOA

Jaungoicoaren Semearen jayotza.

---

### ESQUEINTZA

¡O Birjiña Maria,  
Jaungoicoaren Ama,  
ta ondasun guzien itu-  
rria! Amar Agur Ma-  
ri oyec eta Pater nos-



ter au izan bitez Jesus zure sabeleco Semea munduari eman edo jayo, eta trosa pobre garbietan bildu, ta aberreen estrabian eratzzen zenduenean zure biotzac artu zuen atseguinaren oroipenean. Zure seme ta gure Jaun onen jayotza santuagatic gure biotzetaco garbitasuna, arrren, escuratu zaguzu, beraren maitetasune-

an berriro jayo gai-  
tean, eta Principe Ca-  
tolicoen eta oyen E-  
rreinuetaco paquea, ta  
Jaungoicoa maitatzeco  
osasuna ta grazia.

Amen.





## LAUGARREN MISTERIOA

Elizara Jesus eramatea.

---

### ESQUEINTZA

¡O Birjiña Maria,  
Jaungoicoaren Ama ta  
garbitasun guztien on-  
tzi ederra! Amar Agur  
Mari oyec eta Pater

noster au izan bitez  
zure Semea besoetan  
bere jartoquiric ede-  
rrenean bezela, gure  
salbazioraco Elizan es-  
queñi zenduenean, zu-  
re biotzac artu zuen  
atseguinaren oroipe-  
nean. Misterio onetaco  
argui ta eracuscai ede-  
ragatic, arren, gure  
animaco illuntasuna  
quendu, eta Jesus gu-  
re zorion guztia eza-  
gutzeco bear dan ar-

guia eman zaguzu; eta  
Principe Catolicoen  
eta oyen Erreinuetaco  
paquea, ta Jaungoicoa  
maitatzeco osasuna ta  
grazia. Amen.





## BOSGARREN MISTERIOA

Jesus galduta Eracuslien artean Eli-  
zan arkitzea.

---

### ESQUEINTZA

¡O Birjiña Maria,  
Jaungoicoaren Ama ta  
anima galduen zeruco  
bide segurua! Amar  
Agur Mari oyec eta

Pater noster au izan  
bitez Ama maitea be-  
zela, zure Semearen  
billa ibilli, eta Elizan  
zeruco Eracuslea be-  
zela, lurrecoai eracus-  
ten arguitu zendue-  
nean, zure biotzac ar-  
tu zuen atseguñaren  
oroipenean. Jaun au  
egunero obeto billa-  
tzeco, eta Eracusle  
onen icasbidea obeto  
icasteco, arren, bera-  
ren argui bero bat es-

curatu zaguzu, baita  
ere gure pecatuen pe-  
nitentzia edo aitortze  
on bat eguiteco bear-  
dan grazia eta Princi-  
pe Catolicoen eta oyen  
erreinuetaco paquea,  
eta Jaungoicoa mai-  
tatu ta eriotz on baten  
grazia. Amen.







MISTERIO DOLORETSUAC

ASTEARTE OSTIRALETARACO.

---

**LENENGO MISTERIOA**

Getsemanico baratzan Jesus maiteac  
eguin zuen otoitza.

---

**ESQUEINTZA**

¡O Birjiña Maria,  
Jaungoicoaren Amata  
martiri guztien Erre-

guiña! Amar Agur  
Mari oyec eta Pater  
noster au izan bitez  
zure biotzeco Semea  
eriotzarañoco naiga-  
beaz estuturic, odolez-  
co izerditan egon zan  
garayan, zure biotz  
maitagarriacartu zuen  
oñazearen oroipenean.  
Zure seme Jesus otoitz  
artan gure pecatuac-  
gatic eriotzara esqueñi  
erazo zuen maitetasun  
andiagatic, arren, gu-

re pecatuen eguizco  
damu bat eta Principe  
Catolicoen eta oyen  
Erreinuetaco paquea,  
eta gure Jauna maita-  
tzeco osasuna ta gra-  
zia. Amen.





## **BIGARREN MISTERIOA.**

**Gure Jesus pillare bati loturic,  
azotatua izan zan.**

### **ESQUEINTZA**

**¡O Birjiña Maria,  
Jaungoicoaren Ama ta  
eramanquizunaren is-  
pillu bizia! Amar Agur  
Mari oyec ta Pater nos-**

ter au izan bitez zure  
Seme ederra bere so-  
ñoecoac lots andian  
quendu, azotez urra-  
tu, ta odoletan zijua-  
nean zure biotz mai-  
tatiac artu zuen oñaze  
andiaren oroipenean.  
Zure semearen arriga-  
rrizco eramankizun  
ta maitetasun onega-  
tic, arren, gure peca-  
tuen soñeco zar itsu-  
sia quentzeco, ta oyec  
irabazi duten castigua

ta penac issillic era-  
mateco escuratu zagu-  
zu biotz umil bat, eta  
Principe Catolicoen eta  
oyen Erreinuraco pa-  
quea, ta gure Jauna  
maitatzeco osasuna ta  
grazia. Amen.





## IRUGARREN MISTERIOA

Jesus onari arantzazco coroa josten  
diote.

---

### ESQUEINTZA

¡O Birjiña Mária,  
Jaungoicoaren Ama,  
ta triste guzien alai-  
garria! Amar Agur Ma-  
ri oyec eta Pater nos-

ter au izan bitez zure  
Seme Jesus, guzien  
eguiazco Erregueari,  
bere buru Santua  
arantzaz josi ziotenean  
zure biotzac artu zuan  
eziñ esan alaco oña-  
zearen oroipenean.  
Gure pecatuen eriotza-  
co arantz oriec be-  
rari ta zuri eman zi-  
zuten oñaze gogorra-  
gatic, arren, gure pe-  
catuen ondorengo a-  
rantzac ta nequeac



ondo eramateco bear  
degun eramanchizuna  
escuratu zaguzu; eta  
Principe Catolicoen  
eta oyen Erreinetaco  
paquea, ta gure Jaun-  
goicoa maitatzeco osa-  
suna ta grazia. Amen.





## LAUGARREN MISTERIOA

Gurutzea bere gañean artu, ta Jesus  
Galbariora eramán zutenecoa.

---

## ESQUEINTZA

¡O Birjiña Maria,  
Jaincoaren Ama eta  
lurrean bidez galduen  
argui ederra! Amar  
Agur Mari oyec eta

Pater noster au izan  
bitez Galbarioco bi-  
dean Seme gure pe-  
catuen astuna Guru-  
tzean zeramala, ta ne-  
queaz aren azpian  
erortzen icusi zendue-  
nean zure biotz umi-  
llac artu zuan berdin-  
gabeco oñazeen oroi-  
penean. Jesus maiteac  
ta zuc Betico Aitari  
iduqui ziñioten obe-  
dienzi miragarriaga-  
tic, arren, escuratu

zaguzu gure gurutze  
ta nequeen artean  
arren nayari zuen on-  
doren jarraitzeko obe-  
dienzi umil bat; eta  
Principe Catolicoen eta  
oyen Erreinuetaco pa-  
quea, eta gure Jauna  
maitatzeko osasuna ta  
grazia. Amen.





## BOSGARREN MISTERIOA

Jaungoicoaren Semea gurutzean josia  
izan zan.

---

### ESQUEINTZA

¡O Birjiña Maria,  
Jaungoicoaren Ama ta  
oñazeen ondogabeco  
ichasoa! Amar Agur  
Mari oyec eta Pater

noster au izan bitez  
zure sabeleco frutu  
bedeincatua, gu salba-  
tzeagatic Gurutzean  
josia icusi, ta negarrez  
ta odola zeriola guga-  
tic erregutzen, ta illic  
aren biotza lantza go-  
gorrac idiquitzen icu-  
si, eta zure biotzac  
artu zuen oñazearen  
oroipenean. Zure Se-  
mearen Gurutzeco o-  
ñaze ta maitetasun gu-  
ziagatic, arren, escu-

ratu zaquzu gure pa-  
sio ta gogo eragabe  
guziac Gurutzian jo-  
sitzeco birtutea, eta  
biotzeco damuaz aitor-  
tze on bat equiteco  
bear dan guzia; Princi-  
pe Catolicoen eta oyen  
erreinuetaco paquea,  
Jaungoicoa maitatze-  
co osasuna, eta eriotz  
on bat eduquitzeco  
grazia. Amen.





## MISTERIO GLORITSUAC

Igande,  
Asteazquen eta Larubateetaraco.

---

**LENENGO MISTERIOA**  
**Jesucristoren BERPIZTEA.**

---

**ESQUEINTZA**

¡O Birjiña Maria,  
Jaungoicoaren Ama ta  
Aingueruen Erregui-



ña! Amar Agur Mari  
oyec eta Pater noster  
au izan bitez zure Se-  
mea, erioaz gain ta  
gloriaz beteric, Ain-  
gueru ta Santuen ar-  
tean pizturic, zu icus-  
tera, eta igarotaco  
atsecabeac bere glo-  
riaz aztuerazotzera e-  
torri zanean, zure bio-  
tzac artu zuen zeruco  
pozaren oroipenean.  
Glorizco Misterio one-  
gatic, arren, conzien-

zi garbi baten espi-  
tucó poza escuratu za-  
guzu; eta Principe  
Catolicoen eta oyen  
Erreinuetaco paquea,  
eta gure Jauna maita-  
tzeco osasuna ta gra-  
zia. Amen.





## **BIGARREN MISTERIOA.**

**Jesucristoren zerura igotzea.**

---

### **ESQUEINTZA**

**¡O Birjiña Maria,  
Jaungoicoaren Ama ta  
zeruco ate ederra!  
Amar Agur Mari oyec  
ta Pater noster au izan**

bitez, zure Seme Jau-  
na, zeruetara igotzen  
icusu zenduenean zure  
biotzac artu zuen po-  
zaren oroipenean. Je-  
sus maiteac, Betico  
Aitaren escubiyan ja-  
rriric, daucan almen  
guziagatic, arren, zu-  
re bitartez gure bio-  
tzac lurreco nequeen  
artean beragana beti  
jasotzeco grazia escu-  
ratu zaguzu, zurequin  
batean bera icusteco

ta goratzeco; Principe  
Catolicoen eta oyen  
Erreinuraco paquea,  
eta Jaungoicoa maita-  
tzeco osasuna ta gra-  
zia. Amen.





## **IRUGARREN MISTERIOA**

**Espiritu Santuaren etorrera.**

---

### **ESQUEINTZA**

**¡O Birjiña Maria,  
Jaungoicoaren Ama ta  
gure argui ederraren  
Ama chit santua! A-  
mar Agur Mari oyec**

eta Pater noster au  
izan bitez Eliz San-  
tuaren argui ta atse-  
guiñeraco Espiritu  
Santua Semeac Aita-  
gandic bialdu zue-  
nean, eta zure anima  
beste guzienac baño  
gueyago bere doai  
ederrez ta gloriaco  
ondasunez bete zue-  
nean, zure biotzac ar-  
tu zuen pozaren oroi-  
penean. Arren, Espi-  
ritu pozquidatzalle o-

nen su gar bizi bat,  
zure biotzeco ontzi  
garbian bezela, bera  
ezagutzeco ta maita-  
tzeco escuratu zaguzu;  
eta Principe Catolicoen  
eta oyen Erreinuetaco  
paquea, eta Jaungoi-  
coa maitatzeco osasuna  
ta grazia. Amen.







## LAUGARREN MISTERIOA

Birjiña Amaren zerura igotzea.

---

### ESQUEINTZA

¡O Birjiña Maria,  
Jaungoicoaren Ama ta  
peccatarien laguntza-  
ilea! Amar Agur Mari  
oyec eta Pater noster

au izan bitez, maite-  
tasun gozozco zure  
eriotz onguillearen, eta  
piztu ta gloriaz jantzi-  
rie, Aingueruen er-  
dian zeruetara igo zi-  
ñaneco gloria berdin-  
gabearen oroipenean.  
Zerutar guztiac orduan  
artu zuten atseguin  
andiagatic, arren,  
zure babesean bizi  
gueran peccarioi gu-  
re eriotzaco garayan  
lagundu zaguzu, zure

escuetan eta Jaunaren  
laguntzan gure anima  
eman, eta zu icustera  
betico igo gaitean ze-  
rura; eta Principe Ca-  
tolicoen eta oyen Erre-  
inuetaco paquea, ta  
gure Jaungoicoa mai-  
tatzeco osasuna ta gra-  
zia. Amen.





## **BOSGARREN MISTERIOA**

**Maria guziz santuaren corroatzea eta  
Santu guztien gloria.**

---

### **ESQUEINTZA**

**¡O Birjiña Maria,  
Jaungoicoaren Ama,  
Aingueru ta Santu gu-  
zien Cororic ederrena!  
Amar Agur Mari oyec**

eta Pater noster au  
izan bitez, Trinitade  
chit santuac esan ala  
baño glori andiagoaz,  
guzien Erreguiña ta  
Aingueru guziac baño  
gorago igo, eta eman  
zizun anditasun guziz  
goituaren oroipenean.  
Zuc or goyen dituzun  
glorizco ondasun gu-  
ziacgatic, arren, escu-  
ratu zaguzu lurreco  
gauzac oiñ-pean utzi,  
ta zerucoac zure on-

doren eta Zu icusi ar-  
tean billatzea, eta o-  
rretaraco Jaunarequin  
batean pecatuen eguiz-  
co damuz guzien ai-  
tortze on bat eguitea,  
eta Principe Catolicoen  
ta oyen Erreinuetaco  
paquea, ta Jaungoicoa  
beti maitatzeco osasu-  
na ta grazia. Amen.

---

# AMA BIRJIÑAREN

## LETANIA EUSQUERAZ

---

Jauna, erruqui zaite.

Cristo, erruqui zaite.

Jauna, erruqui zaite.

Cristo, adi gaitzazu.

Cristo, entzun gaitzazu.

Zeruco Aita Jaungoicoa.

*Erruqui zaite guzaz.*

Manduaren Erredentorearen

Seme Jaungoicoa.

*Erruqui zaite guzaz.*

Espiritu Santu Jaungoicoa.

*Erruqui zaite guzaz.*

Trinidad Santu, Jaungoico

bat zerana.

*Erruqui zaite guzaz.*

Maria Santua.

*Erregu ezazu guzaz.*

Escu Liburua. G.—21.

Jaungoicoaren Ama Santua  
Birjiñen Birjiña Santua.

Cristoren Ama.

Grazi Jaungoicoaren Ama.

Ama guztiz garbia.

Ama guztiz chucuna.

Birjiña zeralaric Ama.

Ama cutsu gabea.

Ama sortzetic garbia.

Ama maitagarria.

Ama miragarria.

Eracusbide oneco Ama.

Eguillearen Ama.

Salbatzallearen Ama.

Birjiña guztiz beguiratua.

Birjiña beneragarria.

Birjiña goratugarria.

Escu aundico Birjiña

Birjiña biotz bera.

Birjiña leyala.

Birtute guztien ispillua.



Jaquinduriaren esertoquia.

Gure poz emallea.

Ontzi espiritualala.

Ontzi errespetagarria.

Debozioaren ontzi aundia.

Arros misteritsua.

Daviden Torrea.

Marfillezco Torrea.

Urrezco echea.

Batasunaren cucha.

Zeruco atea.

Egun sentico izarra.

Erien osasuna.

Pecatarien gorde toquia.

Estuasunen poztutzallea.

Cristauen laguntzallea.

Aingueruen Erreguiña.

Patriarquen Erreguiña.

Igarlien Erreguiña.

Apostoluen Erreguiña.

Martirien Erreguiña.

Confesorien Erreguiña.

Birjiñen Erreguiña.

Santu guztien Erreguiña.

Jatorrizco cutsugabe sortu-  
taco Erreguiña.

Errosario chit sagraduaren  
Erreguiña.

Munduco pecatuac quentzen di-  
tuzun Jaungoicoaren bildotsa.

*Barca zaiguzu Jauna.*

Munduco pecatuac quentzen di-  
tuzun Jaungoicoaren bildotsa.

*Entzun gaitzazu Jauna.*

Munduco pecatuac quentzen di-  
tuzun Jaungoicoaren bildotsa.

*Erruqui zaite gutzaz.*

V. Erregu ezazu gugatic Jaun-  
goicoaren Ama Santua.

R. Cristoren aguinduc irichi  
ditzagun.

---

OTOITZA.

Escatzen dizugu,  
Jauna, gure animetan  
zure grazia, issuri de-  
zazula, Cristo zure Se-  
mea guizon eguin zala  
Aingueruaren aotic ja-  
quin degun ezquero,  
aren pasio eta guru-  
tzearen bidez piztue-  
raco glorira eramana-  
izan gaitezen Cristo  
gure Jaun beraren  
irabaziacgatic. Ala  
guerta dedilla.



AITA SAN JOSE GLORITSUARI  
**ESCARIA**

San Jose gloritsua,  
Ama Birjiñaren Senar  
bedeincatua, nic esca-  
tzen dizut lagundu  
nazazula, batez ere  
eriotzaco garayan zu  
bitarteco izanic onac  
izan diranen eriotza  
izan dezadan.

*Aita gurea eta Agur Maria.*



Padua-co San. Antonio-renganaco

**DEBOZIOA**

Fededunac San An-  
tonio-renganaco du-  
ten debozioa beti izan-  
du da chit aundia,  
beragan beste asco ez

bezela Jaungoicoac  
onratu duen Santu  
aundi bat guztiac icus-  
ten dutelaco. Goratuac  
izandu dira beti bere  
ontasunac, bere umil-  
tasun aundia, bere  
garbitasun aingueru-  
coya, aur Jesusenga-  
naco bere maitetasun  
biquña, Aldareco Sa-  
cramentu guztiz san-  
tuarenganaco bere fe-  
de irazequia, animac  
salbatzeco bere gogo

bizia, erejeac bide o-  
nera ecarrierazotzeco  
bere biotz indartsua,  
eta onela zan eguiatz,  
aec izan zezatequean  
etsairic gogorrena; e-  
mendic datoz Santu  
onen ainbesterañoco  
nequeac, gauz arriga-  
rriac eta milagroac;  
oyec eguiten zituen  
lurrean, erriz erri ze-  
billenean, eta eguiten  
ditu orain zeruan  
Jaungoicoarequin bizi

dala ere. Bera da, fe-  
dez eta gogo onez dei-  
tzen dioten guztien  
pozgarria: aren bitar-  
tez arquitzen dituzte  
galdutaco gauzac, bai  
irichi ere gorputzera-  
co eta animaraco,  
mundu onetaraco eta  
besteraco bear duten  
guztia.

San Antoniori bera  
maitatzen dutenac e-  
guiten diozcaten es-  
queintz artean go-



gocoenetaco bat da,  
beraren birtuteac ja-  
rraituaz gñera, Tri-  
nidade guztiz Santua-  
ri errezatzea iru *Aita*  
*gure* eta iru *Agur*  
*Mari*, eman ziozcan  
grazi ta ornitu zuen  
doayacgatic, eta Maria  
chit Santuari, aur Je-  
susi eta Aldareco Sa-  
cramento guztiz ado-  
ragarriari izan zien  
debozioaren oroipe-  
nean.



## OTOITZA.

Nere Aita San Antonio, beti iduqui det nic zugan, escatzen dizudan onetan lagundu eta ontartuco nazulazco uste osoa, chit maite izan zenduen Jaunagatic, eta zure besoetan ainbeste bider iduqui zenduen aur Jesus-gatic. Bizitzan eta eriotzan eguin zĩnituen mirariacgatic Santu doatsua, erregu-

tzen dizut, escatzen  
dizudana, irichi zada-  
zula baldin Jesucristo  
gure Jaunaren gogo-  
coa izan bear badu.

Orain eguiten da escaria,  
eta guero errezatzen da *Aita*  
*gure* bat.





**Jesusen biotzari bere agonian  
erregua.**

**¡O Jesus, guziz erru-  
quitsu ta gure ani-  
mai ainbeste maite di-  
ozuna! Erregutzen di-  
zut zure Biotz guziz  
santuaren agoni ta zu-**

re Ama guziz garbia-  
ren oñazeacgatic, gar-  
bitu ditzazula zure  
odoletan, mundu gu-  
zian agonian dauden  
eta gaur il bear duten  
peccatariac. Ala izan  
dedilla.

*Jesusen Biotz agonian  
egondua: erruqui zaite iltzen  
daudenaz.*

**Jesusec bere biotzaren zale eguin  
dizquien aguinduac.**

---

**Lenengoa: Beren  
estaduco bearrac bete-**

tzeco doai ugariac emango dizquiet.

Bigarrena: Beren echietan paquea jarri-co det.

Irugarrena: Beren atsecabietan poztuco ditut.

Laugarrena: Beren bizitza guzian eta erio-tzaco orduan egontotqui segurua izango naitzaie.

Bosgarrena: Beren lanbide guzien gañerà

bedeincatze ugariac  
issurico ditut.

Seigarrena: Nere  
Biotzean erruquiaren  
iturri ta ichaso ondo-  
gabea peccatariac ar-  
quituco dute.

Zazpigarrena: De-  
bozioan epel dauden  
animac berotuco ditut.

Zortzigarrena: De-  
bozioan bero daudenac  
igoco dira santutasu-  
nic goyenera.

Bederatzigarrena:

Nere Biotza onratzen duten echeac bedein-catuco ditut.

Amargarrena: Biotzic gogorrenac biguntzeco doaia apaizai emango diet.

Amaicagarrena: Debozio au zabaltzen duten guzien izenac nere Biotzean eduquico ditut.

Amabigarrena: Urtearen lenengo bederatzi ostiraletan, ja-



rraituan, debozio an-  
diz comulgatzen dira-  
nac ichegon dezaque-  
te Jaungoicoaren gra-  
zian iltzea; eta Sacra-  
mentu Santuac artu  
gabe ilco ez diran  
uste osoan oec egon  
ditezque.



ERAC SENDATZEN DANEAN EGUINGO DUEN

OTOITZA.

Esquerrac ematen  
dizquizut, nere Jaun-  
goicoa, izan deten gaitz  
eta ostera eman dida-  
zun osasunagatic. Ez  
dezu nai izan ni iltzea,  
eta gaisotu banazu,  
nere osasun ta bizi  
guztia zurea dala oar-  
tuerazotzeco izandu  
da, eta beragatic eguin-  
quizun on ta zuzene-

tan baizac bizitza ibilli  
bear det. Emendic au-  
rrera, bada nere Aita  
ta Jaungoicoa, zure  
jaincozco laguntzare-  
quin ez det bestetan  
erabillico. Eguizu,  
Jauna, quendu dida-  
zun gaitza ez dezadala  
aztu, eta ez dedilla ni-  
gan gueitu bizitzari  
naitasuna nic daucaten  
asmoa, emendic au-  
rrera ondo bizi, Peni-  
tenzi ta Comunioco Sa-

cramentu santuac  
maiz artu, ta erru-  
quizco eguintzac egui-  
ten aritzea, aztuarazi  
ez dezadan. Amen.

*Oarquera.* Eria e-  
chetic irten ditequean  
bezin laister Meza san-  
tua entzutera joango  
da, eta Jaincoari es-  
quer onac emateco  
confesatu ta comulga-  
tugo da.

---

**IRUTASUN EDO TRINIDADE**

**GUZTIZ SANTUARI TRISAJIOA**

---

**Trisajioaren zortzea.**

Trisajio guztiz Santuaren debozioa ez da guizonac bere buruz sortutacoa, Jainco beraren eguintza bat baizic berac Eguillearen gloria goratzeco Serafiñac nola cantatzen zioten aditu zuenean Isaias igarleari somerazo ziolaco.

Elizaco condairac esaten digutenez, Serafinen eta beste Aingueru coroen icastechean icasi zuen, zeruetara bat batetan San Paulo bezela alchatua izan zan aurrac. Teodosio Gaztea Sort-aldeco aguintari zan garayan, Jesucristoren jayotzatic. 447-garren urtean, toqui ascotan oartu zan lurricara chit aundi bat bai bere irau-

penagatic ta bai era-  
carri zituen ondamen  
izugarriacqatic artera-  
ño icusi izan zirane-  
tan gogoangarriena  
eguin zana, sei illabete  
aldean iraun zuen, eta  
bien bitartean Cons-  
tantinopla-urico eche  
galantenetan eta Quer-  
sonesoco murru sendo  
guztian eguindaco cal-  
teac, ezin conta ala-  
coac izandu ziran. To-  
qui ascotan lurra idi-

qui zan, eta bere erra-  
yetan uri osoac onda-  
tuac guelditu ziran:  
iturriac toqui batzue-  
tan agortu, eta bestee-  
tan berriac aguertzen  
ziran; lur-icaren col-  
peac indartsuac ziran,  
zuaitzic andienac sus-  
trayetatic ateratzeraño  
lenago erriberac ziran  
toquietan mendiac, eta  
mendiac baizic etzira-  
netan leize-zulo aun-  
diac aguertzen ziran.



Ichasoac ubazterretara  
botatzen zituen arrai-  
tzar aundiac, eta urac  
legorrean utziric itsas  
baster eta ontziac, es-  
taltzera zijoazen isla  
edo ugarte aundiac.

Onelaco estutasu-  
nean errietatic alde-  
guitea gauzic .onena  
zala uste izan zan; eta  
ala equin zuten Cons-  
tantinopla-co biztan-  
leac Teodosio aguinta-  
riarequin, onen arre-

ba Pulqueria, San Pro-  
colo ango obispo eta  
bere elizguizon guz-  
tiaquin batean. Bildu-  
ric Campo zerizan to-  
qui batean, erregu ira-  
zequi ta deadar aun-  
diac zuzentzen zituz-  
ten zerurontz laguntz  
esque estura ain la-  
rrian: baña egun ba-  
tean goizeco zortzieta-  
tic bederatzien tartean  
lurrac eman zuen as-  
tindua izan zan oi ez

bezelacoa, ta guchic  
eguin zuen, berritu  
etzituela antziñaco u-  
goldeac eracarri zi-  
tuan ondamenac. Ica-  
ratze onen ondoren i-  
cusi zan, guztiac arri-  
turic utzi zituen guer-  
tacari au: bat batetan  
aidean jaso izan zan  
urte guichico mutilcho  
bat Campoan zeuden  
guztiac goronz nola  
zijoan beguira zegoz-  
quietela, alic eta be-

güietatic ezcutatu zizayoteneraño. Zerbait bitarte igarotacoan, lurrera jechi zan, zerura alchatua izan zan era berean; bereala eramazuten Obispo, Aguintari ta oraindic osotoro arritua zegoen guizataldearen aurre-ra, eta esan zien zeruco coroen artean arquite izan zala, ta Aingueruai aditu zuela cantatzen onaco itz

*oec: Jaungoico Santa,  
Jaungoico indartsua,  
Jaungoico illezcorra: izan ezazu  
guzaz erruquipena,  
eta an bilduric zeuden  
guztai icusquera onen  
berria emateco aguin-  
du zitzayola. Aurra, itz  
oec esan da, il zan.*

Guertacari au adi-  
tutacoan, San Proco-  
loc eta aguintariac a-  
guindu zuten canta  
sagradu au anche guz-

tiac batean canta ze-  
zatela, eta lurricara  
bertatic bucatu, eta  
lur guztiac guelditu  
ziran. Emendic asiera  
izan zuen aldi estu ta  
negargarrietan Trini-  
dade guztiz Santuari  
deitzeco, Calzedoniaco  
Conzilio edo batzarreac  
cristau fededunai erre-  
gu-bidetzat jarri zien  
Trisajioaren debozio-  
ac; emendic dator Obis-  
po ascoc debozio au

barcapen ugariaquin  
aberastuaz ontzat e-  
mana izatea; eta emen-  
dic, azquenic, dator,  
debozio au egoqui ja-  
rria, ainbeste bider  
eta beti guztien bai-  
men eta poz aundiz  
moldizdatua izana,  
beguiratuaz Jaungoi-  
coac gure pecatuen  
castiguan lurrerà bial-  
tzen dituen gaiz guz-  
tien contraco sendagai  
bat bezela.

Trisagioa errezatzen dan guztian  
barcapenac irabazteco esqueñaia.

---

Erregutzen dizugu,  
Jauna, Eliza santuaga-  
tic eta beraren zuzen-  
tzalleacgatic; fede san-  
tua gueyago eta gue-  
yago zabaltzeagatic,  
erejiac azquentzeaga-  
tic, principe catolicoen  
arteco paque ta elcar-  
tasunagatic, fedega-  
been eta peccatari guz-  
tien ilsultzeagatic il-  
tzen dauden eta bidean  
dabiltzanacgatic, eta  
gure Ama Eliza san-



tuaren gañeraco bear  
onagatic. Amen.

ÿ. Trinite sante  
eta bat dana bedeinca-  
tua izan bedi, orain,  
eta beti, eta eunqui  
guztien eunquietan.

R). Amen.

ÿ. Jauna nere ezpa-  
ñac idiqui itzazu.

R). Eta nere aoac zu  
gogoratuco zaitu.

ÿ. Nere Jaungoi-  
coa maitetasunezco  
beguiratze bat egui-  
dazu.

R). Jauna, laisterca  
lagundu nazazu.

Y. Gloria Aitari.

Gloria Betico Seme-  
ari.

Gloria Espiritn San-  
tuari.

Eunqui guztien eun-  
quietan.

R). Amen, Aleluya.

Garizuman esaten da:

Goratzeac Zuri, be-  
tico gloriaren Jaun  
Erregue zeran orri.

---

**CONTRIZIOZCO EGUINTZA**

Iru personetan Jaun  
goico guztiz maita-  
garri bat zeran Aita,

Semea eta Espiritu  
Santua, Zugan sinis-  
ten det, Zugan uste  
det, eta Zu maitatzen  
zaitut nere biotz guz-  
tiaz, nere gorputz, ani-  
ma, sentzu ta aleguiñ  
guztiaz: Zu, nere Aita,  
nere Jabea ta nere  
Jaungoico ezin gueya-  
go ona zeralaco, eta  
gauza guztiaz gain  
maitatua izan bear de-  
zulaco damu det, Tri-  
nidade guztiz Santua,  
damu det, Trinitade  
guztiz maitagarria, ze-  
rana izanagatic baca-

rric Zu ofenditu izana:  
erabaquia daucat, eta  
itz ematen dizut egun-  
daño gueyago ofendi-  
tuko etzaitudala, eta  
berriz pecatu eguin  
baño lenago ilco nai-  
zala: uste osoa daucat  
zure ontasun guztiz  
aundi ta Herruqui  
neurri gabea, barca-  
tuko dizquidatzula ne-  
re pecatu guztia eta  
Irutasun edo Trinida-  
de guztiz maitagarria-  
ren eguiazco maiteta-  
sun eta debozio chit  
biotzecoan irauteco

zure laguntza emango  
dizula.

---

### AITARI OTOITZA

¡O Betico Aita! nic  
ez det icusten toqui  
guztietan illuntasun ta  
atsecabea baizic Zu ez  
bazauzcat, besteric ba-  
diote ere mundu ja-  
rraileac. Amen.

¿Zer dit neri gurari  
loyetan etziña dagoe-  
nac esatea, araguiaren  
atseguñac gozatzea  
dala bere zorion guz-  
tia? ¿Zer dit, aundinai  
batec orobat ezan de-

zala, nai duen gloria  
aul-utsezcoa gozatzea  
dala bere atzeguiñic  
aundiena? ni beintzat  
dagoquidan aldetic  
beti arico naitzazu  
esaten zure Igarle ta  
Apostoloaquin batean,  
nere zorionic aundie-  
na, nere ondasun eta  
glori guztia nere Jaun-  
goicoarequin bat egui-  
tea ta beti bere ondo-  
an iñoiz ere aldeguin  
gabe egotea dalaco.  
(Aita gure ta Agur  
Mari bat eta gnero  
bederatzi bider:)

Santua, Santua, Santua, martiztietaco Jaun Jaungoicoa zeru-lurrac daude zure gloriaz beteac.

(Eta coruac eranzuten du:)

Gloria Aitari, gloria Semeari, gloria Espiritu Santuari.

### SEMEARI OTOITZA

Betico eguia; zu quendu ezquero guezurra beste gauzic nic icusten ez det. ¡Guztia iduritzen zait samiña zure biguntasunaren

aldean! Bai guezurti-  
tsuac eta ichusiac de-  
ritzaiizquidala guizo-  
nen jolasac, aditzen  
zaituztenen biotzetara  
zuzenzen dieztezun bi-  
zitzaco itzen aldean!  
¡A! ¿noiz elduco da es-  
talqui ta irudipen ga-  
be artuco nazun gara-  
ya, eta zure gloriaco  
atsedentoquian garbi-  
ro itz eguingo didazu-  
na? ¡ori edertasuna!  
¡ori arguitasuna!

(Aita gure ta Agur  
Mari bat, eta guero  
bederatzi bider:)



Santua, Santua, Santua.

**ESPIRITU SANTUARI OTOITZA**

Jaun guztiaz aundiaren doai ta Jainco beraren atseguñen eta zoriontasunaren biltokiya: ¡bai atseguin dala anima barentzat zure ontasunaren leice ondo-gabea egotea! ¡Guezurrezco atseguñac! ¡zer icusi bear dezute zuec Jaungoicoac anima leyal batean, on deritzayonean issuritsen daquien go-

zotasunic chiquienaren aldean? ¡O! oetacoapur bat ain gozoa baldin bada, ¿zenbait gozoagoac izango ez dira ugaldea bezela neurri gabe eta guztiz oparo zuc issurico dituzunean? ¿noiz izango da au nere Jaungoicoa, noiz?

(Aita gure ta Agur Mari bat eta guero bederatzi bider:)

Santua, Santua, Santua.

---

**ANTIFONA**

Zu Aita Jaungoico  
sortu gabea, Zu Seme  
bacar sortua, Zu Espi-  
ritu Santu pozquida-  
tzallea, Irutasun San-  
tua eta berezi-eziña  
biotz guztiaz aitortzen  
alabatzen eta bedein-  
catzen zaitugu. Gloria  
daguizula Zuri eunqui  
guztien eunquietan.

Ÿ. Bedeincatu de-  
zagun Aita, eta Se-  
mea, eta Espiritu San-  
tua.

R). Goratu eta al-  
chatu dezagun betico.

OTOITZA.

Iru personetan Jaungoico bacar bat zerran Jauna, zure grazia, zure maitetasun eta zurequico elcartasuna betiro iguzu, mundu onetan eta bestean maitatu ta gloria eman dizagun Zuri Aita Jaungoico, Seme Jaungoico, eta Espiritu Santu Jaungoicorri, Jaincotasunean bizi zeralaco betico.

Amen.

---



Mariya chit Santuaren Doloreen  
ZAZPI-URRENA

~~~~~  
Contriziyozco Actoa.

Nere Jesucristo Jauna, e-  
guizco Jaungoico ta guizo-  
na. Zu zerana izanagatic,  
ontasun azquen gabea, damu  
det zu ofenditua; artzen det

gueyago pecaturic ez eguite-  
co asmoa; ta zure Ama ain-  
beste doloreen ganibita zo-  
rrotzez atsecabetuagatic,  
zenbat diran zure contra  
eguin ditudan pecatuac,  
uste det barcatuco didazula,  
emanaz graziya zure serbizi-  
yo santuban ta zure dolo-  
rezco Amarenean irauteco  
eriyotzaraño. Amen.

### OTOITZA

¡Birjiña Mariya dolorezco  
Ama, munduco Ama  
guztiyac baño atsecabetua-  
goa! auspesturic zure oñetan  
zure oñaze ta zure Seme  
maitatu gurutzean josiare-  
nacgatic, erregutzen dizut  
irichi zadazula nere culpen

barcapena, gueyago pecaturic ez eguiteco graziya, ta zure zazpi dolore aundiyacgatic diosal eguitea escatzen dizudan mesedea.

### **LENENGO DOLOREA**

Lenengo dolorea izan zuan Birjiñac bere Semea elizara eramatean.

¡O Ama naigabetua! Zure Semea Elizara eramán zenduanéan izan zenduen doloreagatic erregutzen dizut, indazula penitenziyaz nere anima garbitzeco graziya, glorira eramán dezadan artean.

*Aita gurea ta Agur Mariya.*

## **BIGARREN DOLOREA**

Bigarren dolorea izan zuan Birjiñac Herodesengandic iguesi zebilzanean.

¡O Ama doloretsuba! Nazaretic Egiptora zere Semea-requin iguesi zijoazenean iduqui zenduan doloreagatic, erregutzen dizut, indazula graziya, eguizco penitenziyarequin eta asmo sendoz igues-eguin dezadan Jaungoicoa ofenditzeco zori char guztiyetatic.

*Aita gurea ta Agur Mariya.*

## **IRUGARREN DOLOREA**

Irugarren dolorea iduqui zuan Birjiñac bere Semearen billa zebillenean.

¡O Ama naigabez betea! Semea galdu zitzaizunean iduqui zenduan doloreaga-



tic, erregutzen dizut, indazula graziya nere pecatuben eguizco dolorez ibilli nadin Jesusen billa, alic eta nere biyotzean eduqui dezadan artean.

*Aita gurea ta Agur Mariya.*

### **LAUGARREN DOLOREA**

Laugarren dolorea izan zuan Birjiñac bere Semea gurutzez cargatuba icustean.

¡O Ama naigabetuba! zure Semea samintazunezco calean nere pecatuben gurutze gogorraz cargaturic icustean, iduqui zenduan doloreagatic: erregutzen dizut, indazula graziya berari jarraitu deyodan, nere bizi-

queraco gurutzea eramanz  
quizunez eramatea.

*Aita gurea ta Agur Mariya.*

### **BOSGARREN DOLOREA**

Bosgarren dolorea izan zuan Birjiñac  
bere Semea gurutziltzitzen  
icusi zuenean.

¡O Ama naigabetua! zure  
Semea gurutziltzitzen icus-  
tean iduqui zenduen dolo-  
reagatic: erregutzen dizut,  
indazula graziya nere griña  
ta sentidubac mortificatzeco  
Jesusi jarraitubaz.

*Aita gurea ta Agur Mariya.*

### **SEIGARREN DOLOREA**

Seigarren dolorea izan zuan Birjiñac  
gurutzearen oñean Semea besoetan  
zeucan bitartean.

¡O Ama ondo penatuba!

zure Semearen gorputz zau-  
rituba zure besoetan artu  
zenduanean iduqui zenduan  
doloreagatic, erregutzen di-  
zut, indazula graziya, eguiz-  
co gogo onez comulgatu  
nadin, eta beti zure Seme-  
aren gorputza biyotz garbi-  
yaz artu dezadan.

*Aita gurea ta Agur Mariya.*

### **ZAZPIGARREN DOLOREA**

Zazpigarren dolorea izan zuan Birjiñac  
bere Semearen gorputza obiraturic  
utzi zuenean.

¡O Ama naigabetuba! zu-  
re Semea obiyan utzi zen-  
duanean eduqui zenduan  
doloreagatic; erregutzen di-  
zut, indazula graziya irau-

penaz gorrotatu ditzadan  
pecatubac, munduco lasai-  
querietaraco illa eta Jesu-  
cristorequin obiraturic bizi  
nadin.

*Aita gurea ta Agur Mariya.*

*(Bacoitzac esca dezala bear duena, eta  
on zayona).*

### OTOITZA

¡O Ama chit dolorez be-  
tea! Jaunagan gurutzearen  
oñean animazco bizitza e-  
man ziguzun ezquero, zure  
pena samiñ oyecgatic eman  
zadazu aditzera, ziñez maite  
nazun Ama zerala, eta iritsi  
didazula escatzen dizudan  
graziya beti bizi nadin zure  
Semearen serbitzuban, bera  
zeruco gloriyan goratutzea  
irabazi arte. Amen.



## SAN JOSEREN

OIÑAZE TA POZEN ZAZPI-URRENA

~~~~~  
Contriziyozco Actoa.

Jesucristo nere Jauna, e-  
guizco Jaungoico ta guizona,  
Zu ontasun azquengabea,  
zerana izanagatic, Zu ofen-  
dituba damu det eta zure  
graziyaren laguntzez ez que-

yago pecaturic eguiteco asmoa artzen det; zure aita san Joserren oiñaze ta pozacgatic, uste det irichico dedala irautea, zure serbitzuban goratu zaitzadan zeruban. Amen.

### OTOITZA

¡O zorioneco san Jose! Erregutzen dizut, irichi zadazula nere utseguñen barcapena, gueyago pecaturic ez eguiteco graziya, eta escatzen dizudan laguntza, zure zazpi oiñaze ta pozacgatic agur eguiñaz.

Lendabizico oiñaze ta poza.

San Jose ona! Zure Emazte maitea aurdun icusi-

ric izan zenduen oiñazeagatic ta Ainguerubac ez üzteco eman zizun gaztigu gozoa-  
requin eduqui zenduan po-  
zagatic, erregutzen dizut,  
irichi nazazula graziya ur-  
coarenganaco eguin ditudan  
uste charrac gorrotatu di-  
tzadan, nere anima onela  
garbitzeco.

*Aita gurea, Agur Mariya ta Glo-  
ria Patri.*

**Bigarren oiñaze ta poza.**

San Jose ona! beartasun  
aundiyenean Jesus jayotzen  
icusi zenduenean izan zen-  
duan oiñazeagatic, eta ar-  
tzai ta Erregueac adoratua  
icustean iduqui zenduan po-  
zagatic, erregutzen dizut,

irichi zadazula nic nere  
arroqueriz eguin dituen cal-  
tien damuba, ta umiltasu-  
naz ta espiritu eguizeo ba-  
tez serbitzeco gozamena.

*Aita gurea, etc.*

**Irugarren oiñaze ta poza.**

San Jose ona! zure Se-  
mea icusi zenduenean len-  
bizico odol tantoac isurtzen  
izan zenduan oinazeagatic  
eta Jesus edo Salbatzallea-  
ren izen gozoa jarri zitza-  
yola aditzean artu zenduan  
pozagatic, erregutzen dizut  
irichi zadazula nere griña  
charrac uzteco edo mende-  
ratzeco graziya, eta escuratu  
zadazula nere anima Salba-



tzallearen odolez garbitzeco zoriya.

*Aita gurea, etc.*

**Langarren oiñaze ta poza.**

San Jose ona! Jesusen eriyotza Simeonec aurrez aditzera eman zuanean zuc sentitu zenduan oiñazeagatic, eta gu erredimitzeagatic ilco zala jaquitean artu zenduan pozagatic, erregutzen dizut irichi zadazula sentimentua nere pecatuacgatic cruzificatuba izandu dalaco, eta alaitasuna beraren penac jarraitubaz ibilli nadin.

*Aita gurea, etc.*

---

**Bosgarren oiñaze ta poza.**

San Jose ona! zure Jesus maiteari, Herodesec biziya quendu nai ziyola jaquitean eduqui zenduan oiñazeagatic eta Ainguerubac Egip-ton, gorde zenezala aditzera eman zizunean artu zenduan pozagatic erregutzen dizut, irichi zadazula nere gaiztaqueriequin animetan eguin ditudan gaitzen damuba, ta emendic aurreraco nere eguite onaquin peccariyai icasbidea emateco zoriya.

*Aita gurea, etc.*

**Seigarren oiñaze ta poza.**

San Jose ona! obedi-  
zirik andienaz Israelco lu-  
rrera zijoazen garayan Je-  
sus injuriatuco ote zuten  
eraman zenduen beldurra-  
gatic eta Nazareta juan zin-  
dezela aditzera eman zizu-  
tenean izan zenduen poza-  
gatic, erregutzen dizut iri-  
chi zadazula beldurrezco  
doaya, damuturic mendera-  
tu nadiñ Jaungoicoagana;  
eta eman zadazula indarra,  
icara galtzeco eta bear di-  
tuan birtuteac jarraitzeco.

*Aita gurea, etc.*

**Zazpigarren oiñaze ta poza.**

San Jose ona! Jesusengandic urruti egon zīñan barayan sentitu zenduan oiñazeagatic, eta elizan eracusten icusita iduqui zenduan pozagatic erregutzen dizut, escuratu zadazula nere culpaz eguin dizcandan caltien barcapena, eta zorion guziyac arquitzeco, sarritan Sacramentuac arturic, bera galtzeco bideetatic aldeguin dezadan.

*Aita gurea, etc.*

*(Orain escatuco diyo san Joseri, ondo dagoquiyon mesedea).*

---

OTOITZA.

Jose patriarca chit santu-  
ba, Birjiña Mariyaren eguiz-  
co senarra, ta Jesus gure  
salbatzallearen ait-ustecoa:  
erregutzen dizut, nere San-  
tuba, irichi deyezula ezcon-  
gayai garbitasuna, alargunai  
zintzotasuna; jaquinduriya  
aguinteren bat daucatenai;  
laguntza bearrean daudenai,  
iraupena penitenteai, eta  
guztiyoc irichi dezagula zu-  
re emazte maite Maria chit  
santuaren zaleac izatea, zure  
ta beraren laguntzarequin  
garaitu ditzagun gueren  
etsayac Jesusen ontasunac-  
gatic, baita ere zazpi-urten  
onetan escatu ditugun me-

sedeac artzea, sacrificatu ditzagun gure animac, escu-  
ratu artean eriyotza on bana  
eta Jaungoicoaz eternidade  
guztian gozatzea. Amen.

---

## URRICO ILLAN

Errosario Santu ondoren Leon XIII  
garren Aita Santuac San Jose-ri  
errezatzeco aguindu duen

### OTOITZA

Zugana gatoz, gure estua-  
sunean, o Jose doatsua, eta  
zure emazte chit santuaren  
laguntzaren ondoren; zure  
laguntza ori uste osoarequin  
escatzen dizugu. Jaincoaren  
Ama Maria Birjiña cutsuga-  
bearequin bat-eguin zinduen  
caridadearengatic, eta Jesus

Aurra laztandu zenduen naitasun biguñagatic, umilqui erregutzen dizugu beguiratu deyozula erruquiz Jesu-Cristoc bere odolez irabazitacoai, eta zure escual eta laguntzarequin estali ditzatzula gure bear guziac.

¡O Famili Sagraduaren contuartzalle chit beguiratua! gorde ezazu Jesu-Cristoren ondoren autua, aye-natu gugandic utseguite ta gaiztaquerizco cutsu guziac; zerutic beguionez beguiraturic, gure libratzalle chit indartsua, lagundu zaguzu inpernuco deabruarequin daucagun burruca onetan; eta lenengo Jesus Aurra eriotzaco zori gain-gañecotic libratu zenduen bezela, gor-

de zazu ala orain Jaincoa-  
ren Eliz Santua bere etsa-  
yen biurqueri eta zorigaitz  
guzitic, eta gure arteco ba-  
coitza babestu ezazu zure la-  
guntzaz indarturic, santuta-  
sunean bizi, eriotz on bat  
eguin, eta irichi dezagu-  
quean betico zorionaz eruan.  
Amen.

Aita Santuac Otoitz oni emanac dauzca zazpi ur-  
teco ta zazpi berrogeico barcapenac esaten dan  
aldi bacoitzean.





## ARQUIBIDEA.

	<u>Pág.</u>
Goizeraco orazioa. . . . .	7
Gauberaco orazioa. . . . .	9
Ondo confesatzeco ejerzizioa. . . . .	13
Orazioa . . . . .	14
Ama Birjiñari ta santuai orazioa . . . . .	16
Conzientzico esamiña . . . . .	19
Lenengo aguindua. . . . .	20
Bigarren aguindua . . . . .	25
Irugarren aguindua . . . . .	30
Laugarren aguindua. . . . .	32
Bosgarren aguindua. . . . .	36
Seigarren eta bederatzigarren aguinduetan. . . . .	38
Zazpigarren eta amargarren aguinduetan . . . . .	44
Zortzigarren aguindua . . . . .	48
Esamiñ ondorengo orazioa. . . . .	51
Barcapena escatzeco orazioa. . . . .	53
Confesatu baño lenago eguiteco contriziozco eguintza . . . . .	59
Confesio aurreraco iru gogorapen . . . . .	65
Confesioa ondo eguin ta guero esazu otoitza. . . . .	78
Ondo comulgatzeco jarduera . . . . .	81

	<u>Pag.</u>
Gogorapena . . . . .	83
Otoitza . . . . .	84
Comunioan . . . . .	88
Otoitza . . . . .	89
Escaria . . . . .	92
Otoitza . . . . .	94
Anima Cristi. Aita San Ignazio zioc beti esaten zuan otoitza.	97
Ama Birjiñari ta Santuai otoitza . . . . .	100
Santa Teresaren gaztiguac. .	104
Meza Santua zer dan. . . .	105
Emen ipintzen det Espiritu Santuac Trento - co conzi- lioan eracutsi zuan dotriña.	114
Mezaco misterioaren dotriña. .	116
Mezaren asiera . . . . .	122
Meza Santuaren ondorengo escari edo otoitza. . . . .	171
Bezperac . . . . .	174
Enbizico salmoraco jarduera	179
Bigarren salmoraco » .	183
Irugarren salmoraco » .	188
Laugarren salmoraco » .	192
Bosgarren salmoraco » .	197
Innoraco » .	201
Magnificat-eraco » .	205
Otoitza . . . . .	209
Galbarioco estazioac . . . .	211

Jesucristoren bost llaga sa- graduén adorazioa . . . . .	266
Bost llagai S. Francisco Ja- bier-ec egunero eguiten zioten orazioa . . . . .	271
Ama Birjiñaren Errosario Santua . . . . .	273
Misterio Atseguintsuac . . . . .	275
» Doloretsuac . . . . .	291
» Gloritsuac . . . . .	306
Ama Birjiñaren Letania . . . . .	321
Otoitza . . . . .	325
Aita San Jose gloritsuari es- caria . . . . .	326
Padua-co San Antonio-renga- naco debozioa . . . . .	327
Jesusen biotzari bere agonian erregua . . . . .	334
Jesusec bere biotzaren zaleai eguin dizquien aguinduac . . . . .	335
Eriac sendatzen danean eguin- go duen otoitza . . . . .	340
Irutasun edo Trinitade guz- tiz santuari trisajioa . . . . .	343
Trisajioa errezatzen dan guz- tian barcapenac irabasteco esqueña . . . . .	354
Contriziozco eguintza . . . . .	356
Aitari otoitza . . . . .	359

Semeari otoitza. . . . .	361
Espiritu Santuari otoitza. . . . .	363
Antifona . . . . .	365
Otoitza. . . . .	366
Mariya chit Santuaren Dolo- reen zazpi-urrena . . . . .	367
San Joserren oiñaze ta pozen zazpi-urreña . . . . .	375
Urrico illan Errosario Santu ondoren Leon XIII-garren Aita Santuac San Jose-ri errezatzeco aguindu duen otoitza . . . . .	384















